

EUSKADIKO EKINTZAILETZAREN ERAKUNDEARTEKO PLANA - EEP 2028

2025EKO ABENDUA



Edukia

1. Sarrera	1
2. Testuingurua	2
2.1. Globala: ekintzailtzaren rola nazioartean	2
2.2. Europa: agenda estrategiko berria	3
2.3. EAE: apustu publiko berriak	4
3. Abiapuntua	6
3.1. Abiapuntuko gaitasun bereizgarriak	6
3.2. Arau- eta zerga-esparrua	8
3.3. Eragileak eta laguntza-baliabideak	9
3.4. Emaizak eta eraginak	13
3.5. EAEko ekintzailtzaren indarguneak eta ahuleziak	20
4. Estrategia	23
4.1. Ikuspegi partekatua: etapa berri bat ekintzailtzari laguntzeko	23
4.2. Helburu eta lehentasun estrategikoak	23
4.3. Ardatzak eta lan-ildoak	24
5. Ekintzak eta aurrekontua	34
6. Gobernantza, jarraipena eta ebaluazioa	35
6.1. Gobernatzeko printzipioak	35
6.2. Gobernantza-eredua	37
6.3. Jarraipen- eta ebaluazio-sistema	38
7. Eranskina	39
7.1. 1. eranskina: Egindako elkarriketen zerrenda	39
7.2. 2. eranskina: Euskal Ekintzailtzaren Barometroari buruzko azalpen-oharra	41
7.3. 3. eranskina: EEP 2028ren Adierazleen Panelaren xehetasuna	42
7.4. 4. eranskina: EEP 2028ren ekintzen eta aurrekontuaren xehetasunak	43

1. Sarrera

2025-2028 aldirako Euskadiko Ekintzailtzaren Erakundearteko Planak (EEP 2028) agerian uzten du **EAEko eragile publiko nagusiek duten konpromiso partekatua ekintzailtza babesteko**. Hartara, EAEren garapen ekonomiko eta sozialean lagundu nahi da, “trantsizio hirukoitzetik” (digitala, energetikoa eta soziala) sortutako aukerez baliatuta.

Hala, erantzuna ematen zaio Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko 16/2012 Legean jasotako mandatuari, eta, horretarako, oinarrian hartzen da EAEko ekintzailtzaren egoerari eta erronkei entzuteko eta horiei buruz hausnartzeko prozesu bat. **Zuzenean parte hartu dute 80 pertsonak baino gehiagok**, 51 eragileren ordezkari modura, 52 elkarrizketatan¹ guztira, jasota uzteko ekintzailtza babesten duten eragile publiko eta pribatuen ikuspuntuak, beharrak eta etorkizuneko lehentasunak. Diagnostiko horretatik abiatuta, erronka da **estrategia kolektibo** bat diseinatzea, bideratzeko datozen urteetan ekintzailtzari laguntzen diharduten eragile guztien jarduna.

Hauek dira 2028ko EEPk **erantzun nahi dituen galdera** nagusiak:

FAKTOREAK		2028 EEP-K ERANTZUN BEHARREKO GALDERAK
1  Zein dira ingurune funtsezko faktoreak?	Testuingurua 1. Globala: nazioarteko ekintzailtzaren rola 2. Europa: agenda estrategiko berria 3. Euskadi: apustu publiko berriak	• Nola posizionatu maila globaleko aldaketa-unearen aurrean? • Nola aprobetxatu Europako esparruaren aukerak? • Zer rol bete behar du ekintzailtzak Euskadiren eraldaketa ekonomiko eta sozialean? • Zer gaitasun dauzkagu? Zein ari dira indartzen? • Zein da ekintzaile izateko esparru politikoa, arauemailea eta fiskala? • Zer emaitza eta inpaktu ditugu gaur? • Zein dira Euskadiko ekintzailtzaren indar eta ahulezia nagusiak? • Zer helburu estrategiko komun adostu ditzakegu? • Zer inpaktu eta emaitza lortu nahi ditugu? • Zer kolektibori eman behar diegu arreta lehentasunez? • Zer lan-ildo ezartzen ditugu ekintzailtzaren ardatz bakoitzerako? • Zein da EEPn parte hartzen duten ekintzailtzari laguntzeko eragileek garatu beharreko ekintzen multzoa? • Zein da ekintzen lankidetzak publiko-publikoaren eta publiko-pribatuaren maila? • Zein da onartutako aurrekontua? • Zein da EEPren lan-ardatz bakoitzari dagokion aurrekontu-ahalegina? • Nola hobetzen dugu ekintzailtzaren gobernantza? • Nola ahalbidetzen dugu lankidetzak publiko-pribatu handiagoa? • Nola koordinatzen gara hobeto egunerokoan? • Nola neurtu eta ebaluatzen dugu hobeto?
2  Zein da abiapuntuko egoera?	Abiapuntua 1. Abiapuntuko gaitasun bereizgarriak 2. Esparru arauemailea eta fiskala 3. Laguntzako eragileak eta baliabideak 4. Emaitzak eta inpaktuak 5. Euskal ekintzailtzaren indarrak eta ahuleziak	
3  Zer estrategia planteatzen dugu?	Estrategia 1. Ikuspegi partekatua: ekintzailtzari laguntzeko etapa berria 2. Helburu, lehentasun eta “foku” strategikoak 3. Proposatutako ardatzak eta lan-ildoak	
4  Zer ekintza hartzen ditu barnean 2028 EEPk?	Ekintzak eta aurrekontua 1. Aurreikusitako ekintzak 2. Eragileen arteko lankidetzak 3. Aurrekontua	
5  Nola gobernatzen gara hobeto?	Gobernantza, jarraipena eta ebaluazioa 1. Gobernu-printzipioak 2. Gobernantza-eredua 3. Jarraipen- eta ebaluazio-sistema	

¹ [1. eranskinean](#) dago egindako elkarrizketen zerrenda osoa.

Azalpenean zehar, informazioa egituratzeko, abiapuntutzat hartu dira aurreko EEPn erabilitako **ekintzailtza aztertze**ko **bederatzi ardatzak/dimentsioak**:

1. Ekintzailtzaren kultura eta balioak
2. Giza kapitala trebatzea eta konektatzea
3. Ekintzailtzarako iturriak eta ideiak
4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea
5. Merkaturako sarbidea
6. Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak
7. Zerga-sistema eta araudi erraztaileak
8. Azpiegitura adimendunak
9. Posizionamendua

2. Testuingurua

2.1. Globala: ekintzailtzaren rola nazioartean

XXI. mendeak paradigma-aldaketa ekarri du garapen-ereduan: industria-ekoizpenean oinarritutako ekonomiatik **ezagutzen** oinarritutako ekonomiara pasatu da.

Adostasun zabala dago —besteak beste, ELGAk edo Munduko Bankuak babestuta—, adierazten duena **ekintzailtza** funtsezko jarduera dela garapen sozioekonomikoan, enplegu-sorkuntzan, gizarte-kohesioan eta enpresa-ehunaren berrikuntzan. Hori dela eta, **mundu osoko eskualde eta herrialdeek** diseinatzeko dituzte ekintzailtzari laguntzeko estrategiak, inpaktu positibo horiek lortzeko eta ekintzailtzarako leku erakargarri gisa posizionatzeko (beren biztanleentzat eta beste eremu batzuetako pertsonentzat), elkarren artean lehia arituta.

Gatazka geopolitikoek, protekzionismoak, ezegonkortasun ekonomikoak, azelerazio teknologikoak eta eskualdeen arteko lehia gero eta handiagoak markatzen duten testuinguru globalaren ondorioz, estrategiek gero eta apustu handiagoa egiten dute **baliabideak “ekintzailtza berrira” egokitzearen alde** —eremu hori, era berean, ekintzaileen teknologia berrien, negozio-ereduen, aukera-sektoreen eta beharren eraginak markatuta dago—. Horrez gain, eskualdeek lehentasuna ematen diete sektore-espezializazioari, eragilean kontzentrazio fisikoari eta baliabideen fokalizazioari (fase, proiektu edo kolektibo jakin batzuetan), inpaktu positiboak maximizatzeko.

Ekintzailtzaren arloko joerak eta aldaketak	Ekintzailtzako erreferentziak herrialde eta eskualdeen gakoak
▪ Ekintzaileen eta ekosistemako beste eragile batzuen arteko sareak garatzea funtsezkoa da kapital soziala sortzeko (harreman-kapital gisa ulertuta). ▪ Ekintzailtza korporatiboa eta/edo barne-ekintzailtza bultzatzeak eragin positiboak ditu enpresa-ehunaren berrikuntza-mailan. ▪ Garrantzi handikoa da kapitalen eta arrisku-kapitalen merkaturak Europar bultzatzea, baita eskualdeko ekosistema ekintzaileetan ere (arrisku-kapitala hub gutxitan kontzentratuta egoten da). ▪ Funtsezkoa da ahalegin publikoak soilik proiektu ekintzaileen sorkuntza-fasera ez zuzentzea; hazteko eta eskalatze faseetan ere lagundu behar da. ▪ Finantzaketa publikoak etapa goiztiarretan emateak trakzio-efektua sor dezake eta inbertsio pribatua erakar dezake. ▪ Behar-beharrezkoa da aukera gutxienez dituztenei modu espezifikoan laguntzea, hala nola emakumei, gazteei eta migrantei. ▪ Ekosistema ekintzaileek ezagutza-maila handiko zerbitzuak (KIBS, ingelesezko siglen arabera) garatu eta eduki behar dituzte, startupen beharrik ase ahal izateko. ▪ Ekosistema ekintzaile bakoitza bere ezaugarri eta gaitasun partikularren oinarriaren gainean eraiki behar da: lehendik dauden ereduak kopiatzen ahalegintzea ez da eraginkorra izaten.	▪ Hainbat eragileren kontzentrazio fisikoa (ekintzaileak, startupak, enpresak, inbertsiogileak, unibertsitateak, zentro teknologikoak eta abar) hubean bertan. ▪ Espezializazio sektoriala: sektore jakin bat nabarmentzen den enpresa-ekosistemak teknologia erantsi, erlazionatu eta osagarrien garapena errazten dute. ▪ Finantza-eragilean eta inbertsiogilean aniztasuna eta gaitasuna (zenbait etapa eta behar betetzera bideratuak, mikroredituetatik kapitaleraino). ▪ Kultura ekintzailea eta berrikuntzako: unibertsitatearen eta ekosistema ekintzailearen arteko ezagutza-transferentzia (ikerketaren emaitzak merkaturatzea, eta abar). ▪ Enpresen zein zientifiko-teknologikoen eta unibertsitateen ikerketak eta garapenerako laguntza publikoa. ▪ Pertsona, startup, enpresa, inbertsiogile eta abarren arteko sareak sortzen dituzten laguntzarako azpiegiturak. ▪ Laguntza publiko egonkorra eta ekimen ekintzaileek etapa bakoitzean dituzten beharretara egokitua. ▪ Fiskalitatea eta araudi bideratzailea, inbertsioa, pertsonak, proiektuak, beste eragile batzuk eta abar erakartzeko funtsezko elementu gisa. ▪ Nazioarteko konexioak: irisgarritasun logistikoa eta kokapena, beste hub batzuekin nazioarteko sareak sortzeko elementu gisa.

2.2. Europa: agenda estrategiko berria

Europak agenda estrategiko berri bat planteatzen du, zeinak nabarmentzen baitu premiazkoa dela hiru trantsizio gakoetara (teknologikoa eta digitala, energetikoa eta ekologikoa, eta demografiko-soziala) bideratutako berrikuntzan eta teknologian inbertitzea, horren bidez eraikitze **berrindustrializaziorako, berrikuntzarako, jasangarritasunerako eta segurtasunerako Europako esparru berri bat.**

Une erabakigarria da “Eskualdeen Europaren” etorkizunerako, non anbizioa baita **kontinentearen lehiakortasuna indartzea testuinguru globalean**, hazkunde jasangarria eta bidezkoa sustatuta, eskualdeak aukera izan dezan aldaketa demografikoetara egokitze eta ekonomia berdeago eta digitalizatuago baterantz aurrera egiteko.

Ekintzailtza, batez ere oinarri teknologikoa eta berritzailea duena, funtsezko eragilea da kalitatezko enplegua sortzeko eta EBra talentua eta inbertsioak erakartzeko, baina hobetu beharreko zenbait gabezia ditu.

Testuinguru horretan, Europako Batzordeak, duela gutxi argitaratutako jakinarazpenean², **EBren Estrategia** aurkeztu zuen, **startup eta scaleup-ak sustatzeko**, eta, hala, lehiakortasuna, burujabetza teknologikoa eta erresilientzia ekonomikoa indartzeko beharrari erantzuteko. Estrategia horrek **legegintza-, politika- eta finantza-arloko laguntza-neurri** batzuk ezartzen ditu Europako startup eta scaleupak sustatzeko, Europa leku bikaina izan dadin enpresa global, berritzaile eta teknologian oinarrituak abiarazteko eta hazteko.

Proposatutako neurriak bideratuta daude berrikuntzaren aldeko ingurune bat sustatzera; startup eta scaleupentzako finantzaketa hobetzera; startupak merkatuan sartzen eta hedatzen laguntzera; talenturik onena erakartzera eta atxikitza; eta azpiegitura, sare eta zerbitzuetarako sarbidea erraztera.

“The EU Startup and Scaleup Strategy. Choose Europe to start and scale” <i>Europako ekintzailtza berritzaile eta teknologikoaren diagnostikoaren gakoak</i>	
1. Arauak	- EB ezaguna da Europako eta Europar Batasunetik kanpoko inbertitzaileei egonkortasuna eta konfiantza ematen dieten erregulazio-estandar indartsuengatik. - Estatu kideen arteko erregulazio-zatiketak zaildu egiten du startupek eta scaleupak Merkatu Bakarrean eraginkortasunez jardutea: ziurgabetasuna eragiten die sortzaileei eta inbertitzaileei. - Europar Batasuneko eta estatu kideetako politikek eragin positiboa izan dute ekintzaileen eta startupen ekosisteman. 2007az geroztik, teknologia aurreratua garatzen duten Europako startupek 70.000 milioi euro baino gehiago bildu dituzte venture capital (VC) delakoan, eta 500.000 milioi euro baino gehiago sortu dituzte enpresa-balioan.
2. Finantzak	- Europako sektore publikoa giltzarria izan da VCren merkatua sustatzeko, besteak beste, InvestEU Fund ekimenaren bidez. European Investment Fund (EIF) erakundeak VCren industriaren hazkundera azkartu du azken 30 urteotan, eta urtero 7.000 milioi euro baino gehiago bideratu ditu funtsetara. - Atzerriko VCren inbertsioa handitu egin da Europako enpresetan 2016az geroztik: Europako startupen erosketen % 60 baino gehiago egiten dute erkidegoz kanpoko konpainiek. - Europako finantza-sistema oso kontzentratuta dago bankuetan: banku-aktiboak EBko BPGaren % 300 dira; AEBen kasuan, berriz, % 85. - Europako VCren merkatuaren tamaina mugatuaren arrazoiak dira inbertsio-kulturarik eza, arriskuarekiko ezinikusia eta kapital-merkatuaren zatiketa. - Finantzaketa-hutsune argi bat dago kapitaleko teknologia intentsiboetan, 100 M € baino gehiagoko inbertsioak eskatzen dituztenetan: EBk galdu egiten ditu hasierako faseetan EBn bertan finkatu diren eta teknologia kritikoak garatzen dituzten enpresak.

² Communication from the Commission - The EU Startup and Scaleup Strategy. Choose Europe to start and scale, COM(2025) 270 final, 28.5.2025.

"The EU Startup and Scaleup Strategy. Choose Europe to start and scale" <i>Europako ekintzailatza berritzaile eta teknologikoaren diagnostikoaren gakoak</i>	
3. Merkatuan baliozkotzea eta hedatzea	- Unibertsitateek funtsezko zeregina dute Europako ekosisteman, 157.000 spin-off baino gehiago sortzen baitituzte, hurrengo hamarkadan 6,1 M lanpostu sortzeko ahalmena dutenak. - Ikerketen emaitzen komertzializazioa txikia da: unibertsitateek Patenteen Europako Bulegoaren patenteen % 10 erregistratzen dituzte, baina horien 1/3 bakarrik ustiatzen da komertzialki. - Europar, startupak bi fasetan desagertu ohi dira: berrikuntza merkatura eramateko fasean eta eskalatze fasean. 2008 eta 2021 artean, Europako startup-en % 30 EBtik kanpo lekualdatu zen.
4. EBko talenturik onenari laguntzea	- Europako startupen % 59k dituzte urrunetik banatutako ekipoak, eta startupen ingeniari-taldeek % 78k egiten dute lan urrunetik. - startupek, normalean, ezin dute talentua erakartzeko lehiatu enpresa handiek eskaintzen dituzten soldata eta onurekin. Egoera are zailagoa da kontuan hartuta <i>stock options</i> (ESOs) direlakoan erregulazio-komplexutasuna eta hainbat egoeratako tratamendu fiskalak. - Bigarren eta goi-mailako hezkuntzan diharduten EBko ikasleen % 50ek baino gutxiagok du aukera hezkuntza ekintzailea jasotzeko. - Pizgarri falta dago spin-off-ak sortzen eta ikerketa-emaitzak merkaturatzen laguntzen duten ikertzaileentzat.
5. Azpiegitura, sare eta zerbitzuak erabiltzeko aukera	- Enterprise Europe Network, European Digital Innovation Hubs eta EITk eskaintako baliabideak, zerbitzuak eta programak gorabehera, oztopo nagusiak dira informazio-hutsuneak, sarbide-prozesu konplexuak eta jabetza intelektuala kudeatzeko akordioen zatiketa. - startupek zailtasunak izaten dituzte eskura dituzten zerbitzuen artean orientatzeko, ez baitira gai azpiegitura egokiak eta finantzaketa-aukerak erraz identifikatzeko. - Sartzeko puntu zehatzik ez izateak larriagotu egiten du arazoa, startupek ez baitute bide argirik eta arinik eskura dituzten laguntzak eskuratzeko.

Ildo beretik, estatu mailan, Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak laster **Deep Tech estrategia** bat egiteko asmoa du, zientzia, prestakuntza, inbertsioa eta aholkularitza lotuko dituen ekosistema bat sortzeko eta ikerketa merkatura transferitzeko. Azken helburua da startupak eta scaleupak sustatzea gobernantza eraginkorraren eta lankidetzaren publiko-pribatuaren bidez, Europako autonomia teknologikoari eta lehiakortasunari laguntzeko eta berrikuntzan lidergoa sendotzeko.

2.3. EAE: apustu publiko berriak

Mundu-mailako eta Europako testuinguru horren aurrean, EAEk bere buruari galdetzen dio: *Zer izan nahi dugu? Zer eredu ekonomiko nahi dugu? Nola ekin lehiakortasun- eta ongizate-etapa berri bati? Erronka kolektibo handienetako bat da "etorkizuneko industria eta ekonomia sortzea", gizarte kohesionatuago eta inklusiboagoa eta makroeskalde atlantikoan posizionamendu indartuago bat lortzeko.*

Ikuspegi horrekin bat eginda, Eusko Jaurlaritzak **Industria Plana - Euskadi 2030** onartu du. Plan horrek hiru ardatzen inguruan egituratzen du EAEko industriaren eraldaketa —industria gehiago, industria hobea eta emisio gutxiago—, eta Proiektu Eraldatzaileen bidez gauzatuko dira sektore estrategikoetan: erdieroaleak, mugikortasun elektrikoa, energia berriztagarriak, manufaktura aurreratua eta adimen artifiziala.

Hala, EEP 2028 **tresna osagarri gisa eta Industria Plana - Euskadi 2030 bizkortzeko tresna gisa** ulertzen da, eta horrek erraztu egiten du industria-sektore estrategikoetan, teknologia kritikoetan eta lehentasunezko balio-kateetan enpresa berriak sortzea. Lerrokatze estrategiko horri esker, bi planek elkar indartzen dute: **2030eko Industria Planak EEP 2028ri ematen dio** sektore, teknologia eta lehentasunezko aukeren **ibilbide-orri argi bat**, zeinetan ahaleginak batuko baitira, proiektu ekintzaileen orientazioa eta finantzaketa errazteko; eta EEP 2028k sustatzen ditu, bestalde, talentu ekintzailea, enpresa-berrikuntza eta 2030eko Industria Planak behar dituen irtenbide berriak.

Erronka horri aurre egiteko, **oinarrizko gaitasun bereizgarriak** ditugu: Europan erreferentziazkoa den industria- eta ikerketa aplikatuko sare bat; prestakuntzako eta gizarte-kohesio maila handiak; segurtasun juridikoko, zerga-sistemako eta egonkortasuneko esparru propioa; eta azken hamarkadetan hedatu eta epe ertainera proiektatutako lehiakortasun jasagarriko eta garapen zientifiko-teknologikoko estrategien multzo bat (industria-garapeneko politikak, ZTBP 2030...)

Oinarri hori hartuta, EAEko erakundeek (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak) estrategia eta politika berriak diseinatzen dituzte, eta **ekintzailtzak funtsezko zeregina du** 80ko hamarkadatik: Oinarri teknologiko eta zientifikoko ekintzailtza berritzailea, autoenplegua eta mikroekintzailtza (negozio berriak eta hurbileko zerbitzuak, digitalak...), ekintzailtza kolektiboa (kooperatibak eta lan-sozietate mugatuak), sektore-ekintzailtza (nekazaritzako elikagaiak, osasuna, kultura, merkataritza, turismoa...), lurralde-ekintzailtza (tokikoa, eskualdekoa, lurralde historikoa, hirikoa, landa-eremukoa...) eta kolektibo jakin batzuei laguntzekoa (haurrak eta gazteak, migratzaileak...).

Testuinguru horretan, EAEko legealdi honetako agenda politiko berriak **berritu egin du enpresak eta enplegua sortzearen aldeko apustua**, eta hori ardatz nagusia izango da garapen sozioekonomikoaren, gizarte-kohesioaren eta nazioarteko posizionamenduaren etapa berri batean. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzako hamar sailek, foru-aldundiek (Ekonomia Sustapeneko eta Ogasun eta Enplegu arloak), udalek eta eskualde-agentziek **babesten dute ekintzailtza, zeharka eta ia modu unibertsalean**, kontuan hartuta EAEko hainbat kolektibo, motibazio, sektore, etapa, geografia eta errealitate. Erakunde horiek uste dute une honetan hainbat faktorek (testuinguru globala, Europako esparrua, gure gaitasunen eta laguntza-baliabideen bilakaera...) gonbita egiten digutela **EAEko ekintzailtzari laguntzeko etapa berri bati ekiteko**.

Laguntzen irismena

Kolektiboak	Motibazioak eta sektoreak	Etapak eta epeak	Geografiak
Kolektiboak: • Esperientzia ekintzailea duten edo ez duten pertsonak • Ikasleak (Oinarrizko Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Goi-mailako Hezkuntza) • Soldatapekoak • Langabeak • Ikertzaileak • Enpresaburuak • Esklusio-arriskuan dauden kolektiboak • Herritarrak oro har	Tipologia: • Beharra • Aukera Emaizak: • Beharra: autoenplegua eta/edo mikroenpresak • Aukera: enpresak eta oinarri teknologikoko enpresa berritzaile berriak • Ekintzailtza kolektiboa - Ekonomia soziala: enpresa-ikusmoldea eta helburu sozialak Sektoreak: • Sektore estrategikoak: erdieroaleak, mugikortasun elektrikoa, energia berriztagarriak, manufaktura aurreratua eta adimen artifiziala. • Trantsizio teknologiko-digital, energetiko-ingurumeneko eta demografiko eta sozial hirukoitzari eman beharreko erantzuna. • Nekazaritzako elikagaien industria, merkataritza, turismoa, kultura- eta sormen-industriak, eta abar.	Etapak: • Ideia identifikatzea eta ontzea • Proiektua garatzea • Sozietatea eratzea • Enpresa abiaraztea • Hazkundera eta kontsolidazioa • Eskualdatzea/erreleboa Epeak: • Epe laburra: ekintzailtza inklusiboa eta berdintasunezkoa • Epe ertaina: ekintzailtza berritzailea (maila indibidualen, korporatiboen eta zientifiko-teknologikoen) • Epe luzea: kultura eta balioak	Esparrua: • Euskal Autonomia Erkidegoa • Lurralde historikoa • Eskualdea • Udalerria Ekintzailtza hauen arteko oreka: • Hiritarra • Landatarra Intereseko eskualde ekintzaileekiko konexioa: • Estatukoa • Europakoa • Globala

3. Abiapuntua

3.1. Abiapuntuko gaitasun bereizgarriak

Etap berri honi ekiteko, hamarkadetan osatu diren **gaitasunetan oinarritu** behar dugu.

Ez dira ahaztu behar azken urteotan **indartzen ari diren beste gaitasun batzuk** (**urdinez nabarmenduak**): kanpora gehiago irekitzea, sustatzeko, ikasteko eta erakartzeko; startupen azelerazio profesionalizatua; *venture building* prozesu berriak, teknologian oinarritutako aukerak identifikatzeko eta kudeatzeko; finantza-eragile eta -tresna berriak agertzea; konexio- eta dinamizazio-azpiegitura berriak; eta zerga-esparrua etengabe hobetzea.



SUSTAPENA ETA ERAKARPENA

- Ekosistemaren posizionamendua
- Nazioarteko ikusgaitasuna eta presentzia
- Ekintza indibidualak/kolaboratiboak:
 - Startupak eta enpresak erakartzea
 - Talentua erakartzea
 - Inbertsioa (eta eragile espezializatuak) erakartzea
 - Proiektu estrategikoak erakartzea
 - Ekitaldi espezializatuak erakartzea



ZAINTZA ETA TRANSFERENTZIA

- Prospektiba eta zaintza teknologikoa
- Ezagutza transferitzea:
 - Enpresei transferitzea
 - Merkaturatzeko produktu eta zerbitzu teknologiko berriak garatzea
 - Ezagutza-eragileek oinarri teknologikoko enpresa berritzaile berriak sortzea (baliabide propioekin eta/edo enpresa-erakitzailen laguntzarekin)



LEGERIA

- Esparru instituzionala eta arauemailea
- Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko Legea
- Ekintzailetzaren zerbitzurako fiskaltatea
- Segurtasun juridikoa
- Plangintza, kudeaketa, koordinazio eta ebaluazio publikoa



GIZA KAPITALA

- Ekintzaileentzako prestakuntza oinarritzakoa eta aurreratua
- Gradu, master eta programa espezializatuak
- Bekak eta kontratazioarako laguntzak
- Erasmus eta ekintzaileentzako mugikortasun-programak
- Talentu ekintzaileak kudeatzea (erakartzea eta atxikitzea)



SENTSIBILIZAZIOA

- Ekintzaileak ikusaraztea
- Ekitaldiak eta sariak
- Komunikabideetan ezagutzera ematea
- Sentsibilizazio-kanpainak



SAREA

- Produktzioaren eta zientzia, teknologia eta berrikuntzaren ekosistemarako sarbidea
- Lurralde-ekosistemaren sarea
- Ekintzailetzako eta berrikuntza irekiko hubak (fisikoak)
- Tokiko eta nazioarteko startupen, konpainien, inbertsio-funtsen eta zientzia, teknologia eta berrikuntzako eragileen konexioa
- Ekintzaileen komunitateak eta ekintzailetza-foroak
- Programetako parte-hartzaileen sareak (adibidez, BIND 4.0)
- Nazioarteko erreferentziazko nodoekiko konexioa
- Mentoring-sareak, inbertsiogileak, negozio-ainguruak eta abar.
- Ezagutza-sareak (teknologia, merkatua eta abar)



INKUBAZIOA

- Laguntza-zerbitzu integralak
- Aholkularitza: ideia gintza, negozio-ereduak, negozio-plana / bideragarritasun-plana, marketin digitala eta abar
- Laguntza publikoak kudeatzeko laguntza
- Inkubagailu-sarea (sektorekoak, lurraldekoak, espezializatuak eta abar)
- Enpresa-hazitegi eta -haztegien sarea
- Barne-ekintzailetzako eta berrikuntza irekiko programak
- Enpresa-erakitzailen publikoak eta pribatuak



AZELERAZIOA

- Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea
- Azeleratzaile publikoak eta pribatuak
- Merkatuan enpresen bidez sartzeko (matchmakinga eta aholkularitza)
- Nazioarteko azeleratzaileak (sarbidea)
- Laguntza indibidualizatuko beste zerbitzu sofistikatu batzuk (mentoringa, azpiegiturarako sarbidea, aukera-bilaketa eta abar)



FINANTZAKETA

- Etap berri bakoitzerako dirulaguntza espezifikoa
- Langabeziarako laguntzak - kapitalizazioa
- Maileguak eta finantzaketa-tresnak
- Abalak, kredituak eta arrisku-kapitaleko funtsak
- Funts publikoak (hazi aurrekoa, hazia, azelerazioa eta abar)
- Kapital pribatuko sozietateak eta funtsak (pledge fundak, family officeak, funts espezializatuak)
- Ekintzailetza korporatiboa eta enpresa- eta industria-kapitala
- Kapital teknologikoa
- Negozio-ainguruak
- Mikromezenasgoa, bekak, sariak eta abar
- Aliantza publiko-pribatuak



LAGUNTZA ESPEZIALIZATUA

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea
- Aholkularitza legala, fiskala, finantzarioa eta sektoriala/teknologikoa
- Produktzio-ehuna (know-how edo egiten jakitea)
- Telekomunikazio-, garraio- eta logistika-azpiegiturak
- Energia eta lurzorua

Eta, gainera, balioa emanda **ezaugarri historiko, balio eta izaera** jakin batzuei, ekintzailtzaredu propiotzat har dezakegunari forma ematen baitiote:

- EAEren historia ekonomikoa eta soziala, ekintzailtzaren eta etengabe berrasmatzearen adibide modura, industria ardatz bihurtuta.
- Pertsona ekintzaileen protagonismoa, haien gaitasunak eta balioak, zeinak proiektu ekintzaileen muina baitira.
- 1. eta 2. belaunaldiko pertsona/enpresa ekintzaileak: familia-enpresak, kooperatibak, kotizatuak...
- Konpromisora eta ahaleginera bideratutako enpresa-pentsamoldea eta lan-kultura, oinarri hartuta enpresa-ekimenen seriotasuna, zorrotasuna, zuhurtasuna eta errotzea.
- Ekonomia- eta industria-sare lehiakor eta erresilientea.
- EAEko ekonomian, industrian eta gizartean errotutako proiektu sendo, berritzaile eta konprometituak, erronkatzat dutenak jasangarritasun eta eraldaketa hirukoitzeko (digitala, berdea...) bokazioa handitzea.
- Europa mailako erreferentziazko enpresa-industria-berrikuntza-teknologia-zientzia-ekosistema, zeina oinarritzen baita enpresa industrialen, klusterren eta ezagutza-eragileen sare batean.
- Lankidetzeta eta hurbiltasun publikoa eta publiko-pribatua.

3.2. Arau- eta zerga-esparrua

Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legeak eratzen du ekintzailetza bultzatzeko arau-esparrua, Autonomia Estatutuan jasotako berezko eskumenetan oinarrituta. Eskumen horiek, besteak beste, lotuta daude irakaskuntzarekin, jarduera-sektoreekin (lehenengo sektorea, industria, turismoa...), ikerketa zientifiko eta teknikoarekin; eta jarduera ekonomikoaren sustapen, garapen ekonomiko eta plangintzarekin.³

Foru-aldundien ekintzailetza sustatzeko eskumena jasota dago Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1.d) artikuluan. Artikulu horretan xedatzen denez, foru-aldundien eskumena da ekonomiaren eta gizartearen garapena sustatzeko lankidetzat, kontuan hartuta arlo horretan gainerako administrazio publikoek dituzten eskumenak. Baita Ekonomia Itunaren arabera lurralde historikoei dagozkien zerga-arloko eskumenak ere. Era berean, **toki-erakundeen eremuan**, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean, ekintzailetzarekin lotutako eskumen-sorta zabala jasotzen da, eta 17.25 artikuluan udalei eskumenak aitortzen zaizkie tokiko garapen ekonomiko eta sozialerako, eta tokiko enplegu-politika edo -planetarako.

Esparru propio horrez gain, EEPk barne hartzen ditu Europa, estatu, erkidego, lurralde eta tokiko araudiak, programak eta planak, baldin eta ekintza-ardatzetan, funtsean edo zeharka, ekintzailetza babesten badute (adibidez, Euskadiko Enpleguari buruzko 15/2023 Legea).


16/2012 Legean ezarritako helburuen betetze-maila aztertzean (ikus beheko taula), aurrerapen nabarmenak ikusi dira, baina baita hobetzeko dauden arloak ere ("lotutako lan-ildoak").

EUSKADIKO EKINTZAILEEI ETA ENPRESA TXIKIARI LAGUNTZEKO LEGEAREN HELBURUAK	EKINTZA NABARMENAK	2014-2024 AURRERAPENA	Erlazionatutako lan-ildoak
Enpresak sortzea erraztuko duen esparru ekonomikoa sustatzea	Ekintzailetza errazteko esparru fiskala etengabe eguneratzea	 Handia	Estatuko eta Europako beste eskualde eta ekintzailetza-hub batzuetako esparru legegile eta fiskalaren bilakaera <u>zaintzea eta horri erantzutea</u>
Ekintzaileei laguntzeko <u>egungo politikak koordinatzea</u>	- Ekosistemaren gobernanta: Erakundearteko Mahaia eta Aholku Kontseilua - Erakundearteko Ekintzailetza Planak: 2013-16 / 2017-20 / 2021-24 / 2025-28 - Koordinazio publiko-publikoaren kultura	 Ertaina	- Eragileen/programen arteko <u>sinergiak</u> maximizatzea. <u>Teilakatzek</u> murriztea <u>Koordinazio operatiboa</u> maila guztietan - Programak <u>ebaluatze</u>ko jardunbideak orokortzea - Lagundutako proiektuen <u>trazabilitatea</u> bermatzea - Proiektu ekintzaileak <u>txandakatzearen/galtzearen</u> kudeaketa
Enpresen sorkuntza eta hazkundea bultzatzen laguntzea	- Ekintzailetzari laguntzeko programa ugari: kolektiboen, etapen, sektoreen eta proiektu motaren arabera segmentazioa - BIND eta BIND SME Connection kontsolidatzea. Basque Tek Ventures berria	 Handia	<u>Ekintzailetza inklusibo eta berdintasunezkoaren</u> aldeko apustua indartzea <u>Trantsizio hirukoitza</u> bultzatzea, ekintzaile izateko aukera-esparru gisa - Proiektuen <u>hazkundeari/eskalatzeari</u> laguntza indartua ematea (ekimen partikularreko, enpresen edo ezagutza-eragileen ekimeneko proiektuena)
Ekintzaileen jardueren <u>finantzaketa</u> erraztea	Sortzeko, abiarazteko, hazteko eta kontsolidatzeko potentziala duten proiektuetarako finantzaketa eta inbertsioa eskuratzeko alternatiba sorta	 Handia	Lehentasunezko sektoreetan funts eta kapital <u>pribatu</u> espezializatuak erakartzea edo haiekin lankidetzan jardutea
<u>Finantzaketa-lerroen</u> sorkuntza sustatzea	- Funtsak gero eta neurri handiagoan zuzkitzea eta funts espezializatu berriak sortzea - BasqueFIK - Euskadiko Finantza eta Inbertsio Kluster berria sortzea	 Handia	- Lehentasunezko sektoreetan <u>espezializatutako tresnen eskaintza</u> <u>Baterako inbertsio publiko-pribatua</u>
<u>Giza kapitala</u> , talentua eta sormena indartzen laguntzea	Giza kapital ekintzailea prestatzeko programa sorta, batez ere hezkuntza-etapetara zuzendua	 Ertaina	<u>Kultura ekintzailea</u> sustatzea <u>Ekosisteman eskatutako profilen eskaintzaren eta eskariaren</u> konexioa - Ekosistemako giza kapitalaren kudeaketa aktiboa (konexioa, trebakuntza...): ekintzaileak eta laguntza-talde teknikoak <u>Belaunaldien arteko erreleboari</u> laguntzea, ekintzailetza eta ehuna gaztetzea lortzeko palanka gisa
<u>Talentua</u> iristeko pizgarriak ematea	- Bizkaia Talent + Gipuzkoa Talent - BIND - BAT-B Accelerator Tower eta Beaz Bizkaia - Talentu ekintzailea erakartzeko beste programa batzuk	 Handia	<u>Pertsona eta proiektu</u> ekintzaileak erakartzea - Esparru digitaletan, goi-teknologian, espezializazio-nitxo berrietan eta abar <u>profesionalak</u> erakartzea
Zerbitzu bakoitzaren errentagarritasuna eta kalitatea identifikatuko dituzten <u>adierazle komun</u> en taula sortzea	- EEPre Adierazleen Panel Berria - Euskal Ekosistemaren Barometro Berria - Ekosistemaren 1. Txostena (startupak)	 Handia	Ekosistemari, haren eragileei, programei, proiektuei eta pertsonei buruzko <u>informazioaren eta datuen</u> kudeaketa aurreratua

³ Euskal autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 25. apartatua.

Aurrerapen hori EAEn ekintzailtza bultzatzeko egindako ahalegin publikoan oinarritu da batez ere, tipologia eta kolektibo guztietan. Ahalegin hori neur daiteke **segidan egindako Ekintzailtzaren Erakundearteko Planen** bidez, bertan biltzen baitira 2013-2024 aldian gauzatutako laguntza-politika eta -programa guztiak.

Ondorengo grafikoan ikusten denez, **aurrekontu publikoen hazkundeak** agerian uzten du ekintzailtzari laguntzeko tresna-multzoa arian-arian osatzeko eta indartzeko apustua: laguntza-zerbitzu eta -programak, finantzaketa- eta inbertsio-tresnak, zerga-neurriak, laguntza-azpiegiturak, giza kapitalaren gaikuntza eta abar; gelditu den bakarra izan da ekintzailtzako kultura eta balioak sustatzeko aurrekontua.



Gainera, zerga-arloari dagokionez, **zerga-sistemaren eta segurtasun juridikoaren esparruaren** pixkanakako eraikuntzak **ingurukoekiko bereizgarria izaten jarraitzen du**, gure eskualdeko jardura ekintzailearen erakargarritasuna sustatzen du eta 56 M eurotik gorako zerga-eragina sortzen du (2024).

3.3. Eragileak eta laguntza-baliabideak

Erakundeek autoenplegua sustatzeari lotuta sortu zituztenetik (80ko hamarkada), **haziz joan da** ekintzailtza babesten duten **eragileen kopurua**.

Pixkanaka (ikus koloreak hurrengo mapan), hautemandako beharretatik eta jardura ekintzaileekiko interes gero eta handiagotik abiatuta, handitu egin da eragile publikoen, parapublikoen eta pribatuen kolektiboa. Gaur egun, **150 eragile baino gehiagok parte hartzen dute** laguntza-ekintzetan, haien arteko lankidetzeta-maila gero eta handiagoa da, baita kanpoan egiten duten jardura ere.

- Ekosisteman 2021-2024 aldiari txertatua
- Ekosisteman 2017-2020 aldiari txertatua
- Ekosisteman 2013-2016 aldiari txertatua

Makro baldintzak

- Erakunde publikoak
- Eragile ekonomikoak, enpresetakoak, ezagutzakoak eta abar

Bizi-kalitatea

- Ehun soziala, ekonomikoa, instituzionala, kulturala eta abar

Azpiegitura adimendunak

- Eusko Jaurilaritza: PARKEA, SPRILUR, Tknika / Lanbide Heziketako ikastetxeak...
- Foru-aldundiak
- BIC zentroak, Beaz Bizkaia, BAT
- Udalak eta garapen-agentziak
- Industrialdeak
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea, BRTA
- Unibertsitateak (UPV/EHU, DU, MU, BCC, Tecnun eta EUNEIZ)
- Mondragon Sustapen Zentroa
- Beste zentro, haztegi eta inkubazio, azelerazio- eta coworking-espazio publiko eta pribatu batzuk
- Azpiegiturak: telekomunikazioak, garraioa eta logistika, energia eta lurzorua

Fiskalitatea eta araudi bideratzailea

Lidergo instituzionala eta/edo esparru arauemailea eta fiskala

- Eusko Jaurilaritza
- Foru-aldundiak
- SPRI
- Lanbide
- Beste erakunde batzuk
- Beaz Bizkaia
- BIC zentroak
- Udalak

Laguntzarako prozesuak, zerbitzuak eta programak

Laguntza-zerbitzuak

- Ekintzailetzari laguntzeko prozesuak, programak eta zerbitzuak, eta administrazio eta sozietate publikoetako talde teknikoak:
- Eusko Jaurilaritza, foru-aldundiak, udalak eta garapen-agentziak, BIC zentroak, Beaz Bizkaia, DEMA, besteak beste.
- Euskal Ekintzailetzaren Behatokia - EBB-OVE
- Lege-aholkularitza, jabetza intelektualari buruzkoa, fiskala, finantzarioa, sektoriala/teknologikoa eta abar.

Gobernuz kanpoko erakundeak

- Merkataritza-ganberak
- ADEGI, CEBEK, SEA
- Elkarteak:
- ASPEGI, AED, AJEBASK, AMPEA, EmakumeEkin, ASLE eta abar
- Innobasque eta abar

Merkaturako sarbidea

- Eusko Jaurilaritza - SPRI: BIND 4.0, EIT Food
- Foru-aldundiak
- BIC zentroak
- Beaz Bizkaia
- Udalak
- Mondragon Ventures eta beste enpresa batzuk
- Iberdrola Perseo, Mondragon, Repsol, CAF Startup Station, GH Startup Factory, Dominio, Velatia eta enpresa- eta industria-kapitaleko beste ekimen batzuk
- BAT
- TECNALIA Ventures
- Nazioarteko eragileak eta enpresak (Google, Microsoft, Amazon, Siemens, Play Station...)

Ekintzailetza-sareak

- Lurralde-ekosistemen sareak: SAREKIN
- Mentoring-sareak:
- Eusko Jaurilaritza, foru-aldundiak, udalak, BIC zentroak
- Unibertsitateak (UPV/EHU, DU, MU, Tecnun eta EUNEIZ)
- Lanbide Heziketako ikastetxeen sarea - Tknika - Urratsbat
- Ekintzaileen sareak eta foroak: ADEGI, CEBEK, SEA, ASPEGI, AED, SECOT, AJEBASK, SUA, EmakumeEkin, eta abar
- Inbertsiogileen sareak: BerriUp, MicroWave, Metxa...
- Arte Ederren sareak: Orkestra Crecer+ Keiretsu, Coben
- Nazioarteko hubekiko konexioak: Estonia, Austin, Helsinki, Monterrey, Seul, Boston...

Kultura eta balio ekintzaileak

Balioak eta kultura ekintzaileak

- Eusko Jaurilaritza
- Foru-aldundiak
- Udalak
- Unibertsitateak (UPV/EHU, DU, MU, BCC, Tecnun eta EUNEIZ)
- Innobasque
- Kutxa Fundazioa, BBK, Vital eta beste finantzaz-eragile batzuk
- Vocento taldea
- Hedabide espezializatuak
- Enpresak eta fundazioak
- Nazioarteko eragileak

Arrakasta-kasuen zabalkundea

- Eusko Jaurilaritza
- Foru-aldundiak
- BIC zentroak
- Beaz Bizkaia
- DEMA
- Udalak eta garapen-agentziak
- ADEGI, CEBEK, SEA
- ASPEGI, AMPEA, EmakumeEkin
- El Correo, El Diario Vasco eta abar
- Ekitaldi eta sarien beste antolatzaile batzuk
- Hedabide espezializatuak

Giza kapitalaren trebakuntza eta konexioa

Hezkuntza/Talentua

- Eusko Jaurilaritza: Lanbide, TKNika-LH, irakaskuntza orokorreko ikastetxeak, HAZI (nekazaritzako elikagaien sektoreko gazteentzako prestakuntza)...
- Foru-aldundiak
- BIC zentroak
- Beaz Bizkaia
- Udalak
- Unibertsitateak: UPV/EHU, DU, MU, BCC, Tecnun eta EUNEIZ
- Merkataritza-ganberak
- ADEGI, CEBEK, SEA
- Azeleratzaileak: BerriUp, Metxa, Beaz Bizkaia, Game.eus, eta abar
- Europako Batzordea - Erasmus
- Telefonica Fundazioa
- Nazioarteko eragileak: Startup Wise Guys (SWG, Estonia), Business Jyväskylä (Finlandia), Q-Branch (Austin, AEB), Seoul Business Agency, eta abar

Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea

- Autoenplegurako laguntzak (Eusko Jaurilaritza - Lanbide, foru-aldundiak, udalak...)
- Eusko Jaurilaritza - SPRI - SGEIC (CR, Ekintzaile XXI, Basque Funtza, Luzaro, Sendotu, Basque Tek Ventures...)
- Foru-aldundiak (Seed Capital Bizkaia eta Bizkaia Mikro, Seed Gipuzkoa, Hazibide, BAT (funtzak erakartzea)...)...
- Udalak
- Europako eta estatuko eragileak (CDTI, ICO, EIC Accelerator, EIT Kics, Microeurope...)
- Abalak, kredituak eta arrisku-kapitaleko funtsak (Elkargi, Geroa, Orza)
- Konfekoop finantza-entitateak (Kutxabank, Laboral Kutxa, Sabadell...)
- Kapital pribatuko sozietateak eta funtsak (Ysios Capital, Inveready, Easo Ventures, Acurio Ventures, Kereon, Cardumen, ABE Capital Partners...)
- Pledge Fundak (MicroWave...)
- Enpresa- eta industria-kapitala (Mondragon, CAF, Iberdrola, Velatia...)
- Kapital teknologikoa (Tecnalia...)
- Azeleratzaileak, inkubagailuak eta enpresa-erakartzaileak (BerriUp, Metxa, INIT, Eywa, AIPower, Game.eus, ekimen publikoak eta publiko-pribatuak...)
- Negozio-angeruak, bigarren belaundiko ekintzaileak (Crecer+, Coben, Keiretsu)
- Mikromezenasgoa (Bizkaia crowdfunding), bekak eta sariak, eta abar

EAE n hainbat ekintzaitza- eta proiektu-mota (mikroekintzaitza eta gertuko negozio berriak, startupak, enpresa-ekintzaitza eta abar) elkarrekin bizi daitezten, beren berezitasun eta beharrek, **beharrezkoak dira laguntza-ibilbide eta -tresna bereziak**, ekintzaitza-mota bakoitzerako espezifikoak. Alde horretatik, ekosistemaren ikuspegi homogeneo batetik (eragile eta tresnen multzo erlazionatu gisa) laguntza-ibilbide askotarikoak ikusaraztera pasatu behar da, eta, aldi berean, sartzeko bide bakarra eta laguntza-ibilbide askotarikoak ahalbidetu behar dira, baita eragile eta tresna espezializatu eta koordinatuak ere (bakoitzaren eskumenak eta funtzioak baliatuta), helburu estrategiko partekatuetara bideratuta.

Era berean, **eztabaidagarria da ea nahikoak diren** eragile horien artean **lortutako lankidetzak, koordinazio- eta gobernantza-mailak**, autoenplegua eta mikroekintzaitza laguntzeko eta oinarri teknologiko eta berritzaileko ekintzaitza bultzatzeko, jarraian aztertuko den bezala.


Autoenplegua eta mikroekintzaitza

Autoenpleguaren eta mikroekintzaitzaren kasuan, EAEk, oro har, laguntza-eragileen atomizazioa du; horren barruan sartzen dira lehentasunak, aurrekontua (publikoa, gehienbat), programa eta **banakako adierazleak**, sustatzaile direlarik Eusko Jaurlaritzaren hainbat sail, foru-aldundiak, udalak, eskualdeko agentziak, bitarteko eragileak, sektorekoak eta abar.

Multzo horrek erraztu egiten du laguntzak segmentatzea (hasierako faseetan bilduak) eta politikak pixkanaka hedatzea, baina **gainjartzeak** eta koordinazio eskasa eragiten ditu, batzuetan ez izateagatik gainerako laguntzen berri. Eragile publikoek partekatutako **ekintzaitza-historia bakar bat ez izateak** (pertsonei/proiektuei emandako laguntzen trazabilitatea), batzuetan, laguntzen bikoiztasunak sortzen ditu.

Ibilbideari ekiten dionarentzat **nahasgarria** izan daiteke, eragileen eta “sartzeko ateen” kopuruagatik. Talde teknikoek orotariko esperientzia dute, eta berriz prestatzeko eta profesionalizatzeko eskatzen dute, proiektua hobeto bideratu ahal izateko. Laguntza-azpiegiturak hiriburuetan daude, baina 100 mintegi, inkubagailu eta coworking publiko baino gehiago daude hainbat eskualdetan.

Mikroekintzaitzari laguntzeko programen mapa



Enpresa berritzaile berriak (OTEBak eta OZEBak)

Bitartean, **oinarri teknologikoko enpresa berritzaileei** (OTEBak) eta **oinarri zientifikoko enpresa berritzaileei** (OZEBak; TRL baxuko ikerketa-emaitzetan oinarritutako proiektuak) dagokienez, eragile, laguntza-programa eta finantzaketa- eta inbertsio-tresna ugari eta askotarikoak daude (aurrerantzean, "F/I"), sustatzen dituztenak Eusko Jaurlaritzaren Ekintzailetza eta Nazioartekotze Zuzendaritzak, SPRIk, Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailak, foru-aldundiak, Enpresa eta Berrikuntza Zentroek, Beaz Bizkaiak, udalek eta agentziek. **Arreta berezia jartzen da hasierako faseetan**, eta, oro har, itzuli beharrik gabeko dirulaguntzetan.


OTEBetako ekintzaileentzat ekosistemara sartzeko bidea Business Innovation Center-ak dira, zeinak erreferenteak baitira proiektuen lehenengo urratsen aholkularitzan. Hiru lurralde historikoetan hainbat baliabide, laguntza-metodologia eta programa izanik, koordinazio nahikoa antzeman daiteke SPRIrekin, zeinak aurrerapenak egin baititu proiektuak baloratzeko eta hasieran indartzeko operatiboari edo programa eta funts osagarrien konexioari begira, baita finkatutako eragile pribatuekin ere (inkubagailuak eta hazi-kapitalaren funtsak eta abar).

Hasierako harreraren eta orientazioaren ondoren, **dirulaguntzen programa baliokideak daude**, eta SPRIren eta foru-aldundien artean **modu koordinatu eta osagarrian ezartzen dira**, neurri handiagoan edo txikiagoan, bideragarritasun-, abiarazte- eta hazkunde-faseetan.

Finantzaketa- eta inbertsio-tresnei dagokienez, tresna publikoak zabaldu eta egokitu egin dira pixkanaka, hasierako faseetan batez ere. Hala ere, tresna espezializatuak ez dira nahikoak zenbait etapatan (hazkundera, eskalatzea, sendotzea), sektoretan (lehentasunezkoak, teknologia kritikoak) eta beharretan (adibidez, transferentzia teknologikoko funtsak etapa goiztiarretarako). Alderdi **pribatuan**, finantzaketa- eta inbertsio-ekimenak agertzeak eta erakartzeak multzo osoa aberasten du, eta lankidetzak eta baterako inbertsio publiko-pribaturako aukerak zabaltzen ditu; hala ere, oraindik ez dira nahikoak funts eta eragile pribatu horietako batzuen tokiko presentzia eta inplikazioa (adibidez, venture enpresa-kapitala).

Horrez gain, **ekimen aitzindariak** jarri dira abian (BIND, BAT B Accelerator Tower), proiektuak, inbertsioa, talentua eta abar erakartzeko, finkatutako enpresen berrikuntza irekia bultzatzeko eta Estatuko eta Europako programa osagarrietan parte hartzeko.

OTEBei laguntzeko programen mapa




3.4. Emaitzak eta eraginak

Hainbat tresna daude abian jarritako politiken emaitzak eta eraginak ezagutzeko; eta ekintzailtza-jardueraren bilakaera eta egoera ebaluatzeko. Jarraian azalduko dira.

a) Euskal Ekintzailtzaren Barometroa⁴

Euskal Ekintzailtzaren Barometroak zenbakizko balio bakarrean laburbiltzen du EAEko ekintzailtzaren emaitza, 67 adierazle baloratuta eta haztatuta. 2024an, 116,7 puntutan kokatu zen, eta, hala, **erritmo dinamiko onari** eutsi zitzaion, eta pandemiaren aurreko balioen gainetik finkatu zen goranzko ibilbidea. 2023ko datuarekin alderatuta, 5,5 puntu (% 4,9) igo da.

Hona hemen adierazlearen bilakaera eta hari 2024an egindako ekarpen positibo nagusiak (ekarpen positiboaren beheranzko hurrenkeran, ehunekotan).



2024ko datuari egindako ekarpen positibo nagusiak:

- ✓ 5 langile baino gehiago dituzten negozio ekintzaileen ehunekoa (%).
- ✓ Eragile publikoen laguntzarekin egindako bideragarritasun-planak.
- ✓ Inbertsio publiko osoa startupen finantzaketa-txandetan.
- ✓ Azken urtean enplegua sortu duen TEAren ehunekoa (%).
- ✓ Ekintzailtza-prestakuntza jaso duten pertsonak.

b) EEPren adierazleen panela⁵

Aldi berean, EEPren Adierazleen Panelak erakusten du zein izan den EAEko ekosistemaren dimentsio bakoitzaren jardueraren, emaitzaren eta eraginaren **adierazle nagusien bilakaera**.

Nabarmentzekoa da 2024an pertsona autonomoen altak (+% 4,9) eta merkataritza- eta gizarte-enpresenak (+% 9,6) izandako hazkundera. Gainera, handitu egin da ekintzailtza-prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua (dauden programak indartu direlako eta berriak abiarazi direlako), baita sarien bidez mobilizatu diren proiektuena ere (ekintzailtzaren kultura bultzatzea), eta murritztu egin da porrotarekiko beldurra. Negatiboan daude balizko ekintzailtza-tasa eta goi-mailako ikasketak dituzten eta hasierako fasean dauden ekintzaileen ehunekoa.

Horrez gain, nabarmentzekoa da azken urtean zerga-inpaktua handitu egin dela, eta startupen finantzaketa-txandetako inbertsio totalak ere gora egin duela (90 M € baino gehiago 2023-2024an). Halaber, 2024an hazi egin dira ekintzailtza-tasa totala (TEA), ekosistemaren kalitate-indizea (NECI) eta eragile publikoen laguntzaz egindako bideragarritasun-planak, eta pandemiaren aurreko mailetara itzuli dira. Gainera, maximo historikora iritsi da azpiegitura publikoetan inkubatutako enpresen kopurua (228). Negatiboan, gelditu egin da BIND programaren kontratuen kopurua, eta murritztu egin dira enpresen iraupenaren tasak.

⁴ Euskal Ekintzailtzaren Barometroari eta haren metodologiari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikus [2.eranskina](#).

⁵ Adierazleen Panela, EEPren erakundearteko mahaian parte hartzen duten administrazio publikoek adostua, tresna nagusietako bat da euskal ekintzailtzaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko. Ikus [3.eranskina](#) adierazle bakoitzaren informazioaren xehetasunetarako (izena, iturria, neurtzeko formula eta abar).

ARDATZA	IZEN LABURTUA	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
1. Ekintzailtzaren kultura eta balioak	Ekintzailtza-sariei mobilizatutako proiektuak	583	336	405	446	571	461	829	855
	Ekintzaile potentzialak (GEM)	% 4,5	% 5,0	% 9,2	% 6,4	% 8,0	% 7,59	% 7,0	% 6,8
	Porrotarekiko beldurra (GEM)	% 42,4	% 42,7	% 55,9	% 66,0	% 61,5	% 59,51	% 53,2	% 48,9
	Inpaktu soziala/ingurumen-inpaktua lehenestea (GEM)	GEM txostenaren adierazle berria				G: % 60,5; E: % 62,7	G: % 55,38; E: % 56,77	G: % 43,7; E: % 47,0	G: % 50,1; E: % 56,0
2. Giza kapitala trebatzea eta konektatzea	TEA goi-mailako ikasketekin (GEM)	% 49,0	% 50,0	% 36,6	% 63,0	% 58,8	% 62,6	% 56,2	% 49,5
	Ekintzailtza-prestakuntza jaso duten pertsonak	5.259	5.750	6.001	3.153	4.926	5.168	4.902	5.944
	5 langile baino gehiago dituzten negozio ekintzaileak (%) / 5 urtean 5 langiletik gora izatea espero den enplegua TEA (GEM)	% 6,9 / % 13,1	% 1,4 / % 6,8	% 9,7 / % 21,4	% 10,0 / % 19,3	% 7,1 / % 15,3	% 10,6 / % 16,2	% 7,0 / % 15,8	% 11,7 / % 25
3. Ekintzailtzarako iturriak eta ideiak	Laguntza publikoarekin sortutako enpresa berriak	2.745	2.799	2.592	2.267	2.342	2.532	2.532	2.545
	Pertsona autonomoen altak	-% 8,90	+% 8,0	-% 11,8	-% 17,2	+% 9,2	+% 22,8	-% 10,2	+% 4,9
	Merkataritza- eta gizarte-enpresen altak	-% 4,2	+% 3,9	+% 0,6	-% 15,8	+% 20,5	-% 2,6	+% 2,4	+% 9,6
	Startup aktiboen kopurua	Adierazle berria					1.024	1.037	1.187
	Barne-ekintzailtza - ZTB eragileen spin-off-ak eta enpresa proiektu berriak	24 / 98	24 / 110	21 / 119	16 / 110	16 / 119	18 / 102	19 / 165	<i>Aribidean</i>
	TEA generoaren arabera (GEM)	% 5,8	% 5,1	% 4,7	% 5,2	% 4,9	% 5,2	% 5,5	% 6,0 (G: 7,0; E: 5,0)
4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea	Inbertsio publiko osoa start-upen finantzaketa-txandetan (euroak milioitan) *	3,5	11,5	34,9	14,4	84,0	60,7	56,6	73,0
	Inbertsio pribatu osoa start-upen finantzaketa-txandetan (euroak milioitan) *	4,5	7,6	20,1	8,0	14,7	14,7	37,6	21,7
	Ekintzaileak berak ordaintzen duen hazi-kapitala (%) (GEM)	% 45,8	% 58,0	% 58,7	% 79,0	% 74,2	% 65,81	% 68,8	% 61,0
	EAEko start-upen balorazio osoa (euroak milioitan)	401	467	697	783	973	1.500	2.000	1.900
5. Merkaturako sarbidea	BIND programaren kontratuak	40	44	53	40	33	33	31	24
6. Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak	Eragile publikoen laguntzarekin egindako bideragarritasun-planak	3.097	3.180	2.909	2.264	2.181	2.217	2.179	2.939
	Aholkularitza jaso eta 3 urtera irauten duten enpresak	Enpresak: % 78 Autonomoa k: % 80	Enpresak: % 88,43 Autonomoa k: % 79,14	Enpresak: % 88,58 Autonomoa k: % 71,19	Enpresak: % 81,25 Autonomoa k: % 81,62	Enpresak: % 85,9 Autonomoa k: % 85,8	Enpresak: % 80,15; Autonomoa k: % 67,21	Enpresak: % 78,72; Autonomoa k: % 82,72	Enpresak: % 78,94; Autonomoa: % 81,4
	Enpresa-populazio finkatua (GEM)	% 5,6	% 5,8	% 7,6	% 5,8	% 5,2	% 4,86	% 5,5	% 5,8
7. Zerga-sistema eta araudi erraztaileak	Ekintzailtza babesteak dakarren inpaktu fiskala (euroak milioitan)	34,2	38,7	33	33	24	35	59	56
8. Azpiegitura adimendunak	Azpiegitura publikoetan inkubaturako enpresak	151	123	120	117	142	193	213	228
9. Posizionamendua eta ekosistema indartzea	Ekosistemaren Kalitatea, NECI (GEM)	Adierazle berria	5,3	5,0	5,0	5,7	5,22	5,1	5,3
EEPren aurrekontua	EEPri esleitutako urteko aurrekontua (euroak milioitan)	45,8	49	57,2	56,9	73,5	96,4	83,5	89,6

* Serie historiko osoa, 2025eko martxoan lortutako datuekin eguneratua.

** EAEko Zerga Koordinaziorako Organoak (Eusko Jaurlaritza eta foru-aldundiak) urtero kalkulatzeko du ekintzailtza babesteagatik inpaktu fiskala, kalkulu horren bidez zenbatesteko ekintzailtzarekin zuzeneko lotura duten eta EAEko foru-ogasunek PFEZn eta S2n aplikatzen dituzten enkarien, salbuespenen eta gainerako neurri fiskalen kostua. Datuak aurre-aurreko ekitaldietakoak dira.


c) EUSTAT – enpresa berriak eta enplegua

Ekintzailetzak EAEko ekonomian duen eraginaren hurbilketa gisa, jarduera-sektoreen arabera enplegu-altan kopurua aztertuko da (EUSTATen datuak).

Nabarmenezkoa da **merkataritza, ostalaritza eta aisiaren sektoreen hazkundera**, 2017-2020 epearekin alderatuta, alta guztien % 29 gaintitu baitzuten. Bestalde, industriako enpleguaren altak, azken hamarkadan % 6 eta % 8 artean mantendu direnak, % 6,2ra jaitsi dira 2024an.

Oro har, datu horiek koherenteak dira sektoreak azken urteotan EAEko ekonomian izan duen bilakaerarekin (BPG edo BEG - balio erantsi gordinaren terminoetan), **industriak beherakada** txikia izan baitu, zerbitzuen sektorearen eta sektore publikoaren hazkunderaren aldean.

Egindako altak (enpleguak), jarduera-sektorearen arabera [2013-2024; EAEko alta guztiekiko ehunekoa (%)]



Bilakaeraren gakoak sektoreka

- **Industriak** (kontuan hartuta manufaktura-, erauzketa-, energia- eta ur-industria) 10.566 establezimendu ditu, 2013an baino % 17,5 gutxiago (2.249). Hala ere, enplegua 183.816ra igo da, 2013an baino % 1,1 gehiago (2.067).
- **Eraikuntzaren** sektorean, 3.207 establezimendu gutxiago daude (-% 14,2) eta 5.105 enplegu gutxiago (-% 8,4).
- **Lehenengo** sektoreak 4.692 establezimendu ditu, 2013an baino % 34,5 gutxiago (2.476). Enpleguak ere behera egin du, 9.398raino, 2013an baino % 31,9 gutxiago (4.402).
- **Zerbitzuen** sektorean, 35.600 lanpostu gehiago sortu dira, guztira izandako igoeraren heren bat (1/3) baino gehiago.
- **Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak** establezimenduen % 12,8 eta enpleguen % 7,3 dira, 2013an baino 0,9 eta 0,5 puntu gehiago, hurrenez hurren.
- **Jaitsierarik nabarmenenak merkataritzan** izan dira. Sektore horretan 9.100 establezimendu baino gehiago (-% 21,3) eta 5.200 lanpostu baino gehiago (-% 4,0) galdu ziren 2013 eta 2024 artean.
- **Ostalaritzaren** sektorean ia 700 establezimendu gutxiago izan ziren (2013-2024; -% 4,8) eta, hala ere, ia 14.000 enplegu gehiago (guztira, 2013an baino % 27,2 gehiago).
- **Jarduera artistikoen, aisialdikoaren eta entretenimendukoaren** sektorean, 5.000 establezimendu inguru daude guztira, 2013an baino % 46,7 (1.600) gehiago.
- Administrazio publikoak, hezkuntza, osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuak konbinatuz gero, sektore horretan hazi da gehien establezimenduen kopurua, eta **enplegu-igoeraren % 50 baino gehiago** eragin du.

d) GEM – Ekintzailea

2024-2025eko EAEko GEM txostenen arabera, EAEk **ekintzaile helduak eta trebatuak** ditu, ekintzaile izateko gaitasunak dituztenak eta merkatuan aukerak daudela uste dutenak.

Txostenaren azken edizio horretan, nabarmen murriztu da **porrotarekiko beldurra** (% 53,2tik % 48,9ra jaitsi da), eta posizio hobean dago estatu osoarekin (% 52,1) eta EBko batezbestekoarekin (% 50,6) alderatuta; Alemaniakoaren antzekoa da (% 48,8).

Hala ere, **negatiboan** hauek nabarmentzen dira:

- TEAren (ekintzaitza-jarduera osoa) maila txikiagoa da EAEn (% 6,0), Kataluniarekin (% 8,6), Europako erreferenteekin (% 9,8) edo EBko batezbestekoarekin (% 8,9) alderatuta.
- Ekintzaile potentzialen ehuneko txikiagoa da: % 6,8 Estatuko % 11,2ren aurrean, % 15,6 Alemanian eta % 16,6 batez beste EBn.

Aldiz, **nabarmenezkoa da laguntza-ekosistemaren kalitatea**, Alemaniak, Herbehereek eta Europako batezbestekoak baino puntu gehiago lortu baititu. Hala, EAEko azken GEM txostenaren arabera, ekintzaile izateko azpiegitura eta programa bikainak daude, baita nabarmen hobetu dira gobernu-politikak (zerga-sistema, burokrazia eta abar).

Bestalde, txostenak adierazten du **gazteen artean hezkuntza-defizita** dagoela (balorazioa handitu bada ere), baita barne-merkatuaren dinamika eta haren oztopoak hobetzeko potentziala ere.

e) SPRI eta foru-aldundiak – Enpresa-ekintzaitza

Arreta berezia jarri behar zaio enpresa-ekintzaitzari, funtsezkoa baita **proiektu berritzaile berriak sortzeko eta EAEko ekonomia-sarea berritzeko**. Proiektu egokien bidez (barne-ekintzaitza, dibertsifikazioa, sustapen eta garapen korporatiboa, berrikuntza irekia, teknologia berrien garapena eta sektore hasiberrietako negozio berritzaileak jorratuz), enpresa ekintzaileek ekarpen erabakigarria egiten diote industriaren bilakaerari.

Hori dela eta, azken hamabost urteotan, **EAEko administrazio publikoek etengabe konpromisoa hartu dute barne-ekintzaitza babesteko**, eta, horrekin batera, enpresen lehiakortasuna indartzeko beste programa osagarri batzuk gauzatu dituzte.

- Barne-ekintzaile programaren bidez (foru-aldundien programekin koordinatuta), 2010etik (2022ra arte), guztira 10,36 milioi euroko 563 dirulaguntza eman zaizkie 480 enpresari barne-ekintzaitza sustatzeko.
- Lagundutako proiektuen % 39 manufaktura-industriakoak dira, % 28 jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetakoak, eta % 9 informazioaren eta komunikazioen sektorekoak.
- 240 enpresa onuradunen lagina abiapuntu hartuta, ikus daiteke % 76,3k laguntza jaso zutenetik areagotu egin zutela fakturazioa.

Datu horiek berresten dute enpresa finkatuek zenbait **gaitasun** dituztela, eta gaitasun horiek, izaera industrial, teknologiko eta berritzailearekin batera, handitu egiten dutela enpresa berritzaileak sortzeko ahalmena.

Mondragon taldearen kooperatiben edo EAEko zenbait enpresa-talderen ekintzaitzako ibilbide eta bokazio sendoaz gain, **barne-ekintzaitzarako potentzial** interesgarria dago nitxoetako enpresa liderretan (INML), enpresa ertainetan edo “gazeletan” (hazkunde handikoak).

f) Up! Euskadi – Enpresa berritzaileak eta oinarri teknologikokoak


Izaera teknologiko eta berritzaileko enpresa berrietan (OTEB) arreta jarrita, EAEko ekosistemak ia **1.200 startup** ditu aktibo, 1.900 milioi euroko balorazio metatuarekin. Urtero, 100-110 OTEB sortzen dira EAEn (% 80 laguntza publikoarekin), eta, horren ondorioz, 495 startupeko tasa dugu milioi biztanleko (EBko 6. postua).

Startup aktiboetatik, 1.088 sortu dira 2013 eta 2024 bitartean. Guztira, **5.745 pertsonari** ematen diete lana, eta **724,6 milioi euroko fakturazioa** dute. Grafikoak erakusten duenaren arabera, urtez urte sortu diren startupetatik gaur egun aktibo jarraitzen dutenen kopurua garbiki handiagoa da deslokalizatutako, desagertutako edo aktibo ez dauden startupen kopurua baino.

Adierazitako **sektoreei** dagokienez, lau startupetik batek (270 baino gehiago guztira) 4.0 industriarako soluzioak eskaintzen ditu. Osasun- eta energia-sektoreak 170 startup baino gehiago ditu, eta energia-sektoreko startupek balorazio handiagoa metatu dute; elikagaien teknologien sektoreak ere 100 startup baino gehiago ditu. Teknologiaei erreparatuta, nabarmentzekoak dira hardware-a, big data, mobile aplikazioak, AA, deeptech, nanotech, 3D, IOT, VR, machine learning...


Azken urteotan, EAEko administrazio publikoek ahalegina egin dute startupen sorkuntza propioa **erakarpenarekin** osatzeko. Adibide gisa, Bizkaiak guztira 98 startup erakarri ditu 2021-2024 aldian, batez ere Estatuko gainerako lurraldeetakoak.

Enpresen zenbaketa, eratze-urtearen eta egungo jardueraren arabera 2013-2024; kopurua




2013 eta 2024 bitartean sortutako startupen egungo fakturazioa eta enplegatu kopurua, lurralde historikoen arabera 2025; M€ eta enplegatu kopurua (Euskadiko guztizkoaren gaineko ehunekoa)

Fakturazioa



Pertsona kopurua



LH bakoitzean finkatutako OTEBen analisiak hainbat datu interesgarri eta adibide nabarmen eskaintzen ditu:

BIZKAIA

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren aurrekontu metatua, ekintzaile berritzaileari laguntzeko (2021-2024): 88,9 M€

- 612 startup
- Kapital-arriskuko 13 inbertsiogile
- 5.212 pertsona startupetan enplegatuta
- Sektore nagusiak: osasuna, energia, moda eta garraioak.
- Finantzaketa-txandetan egindako inbertsioa (M€):



Startup nabarmenak (balorazioko lehen bostak):



Emaita eta inpaktuen laburpena (Beaz Bizkaia 2024ko memoria):

- 507 enpresa sortu dira 2011-2022 aldian laguntza publikoarekin; langile bakoitzeko 155.000 euroko fakturazioa, eta 989 enplegu.
- 94 enpresa inkubazio-espazioetan kokatuta: 17 Zitek, 9 Deustokabi, 22 BIC Bizkaia, 24 BIC Ezkerraldea, 10 Design Kabi eta 12 NIC; guztira 516 enplegu eta 118 milioi euroko fakturazioa. Eta 106 enpresa BAT dorrean
- EIC Accelerator programaren azken edizioetan hautatutako enpresak: Senstile eta Suprasys
- Beaz Acceleration Program ekimenaren inpaktua: 5 startupek % 122ko hazkundea izan dute fakturazioan (542 K€), eta % 34ko hazkundea enpleguan (16 enplegu). 7 milioi euroko inbertsio-zenbateko metatua aurreikusitako txandetan.


Startup nabarmenak (enpleguko lehen bostak):



GIPUZKOA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuaren aurrekontu metatua, ekintzaile berritzaileari laguntzeko (2021-2024): 25,6 M€

- 385 startup
- Kapital-arriskuko 11 inbertsiogile
- 3.166 pertsona startupetan enplegatuta
- Sektore nagusiak: osasuna, energia, segurtasuna eta kirola.
- Finantzaketa-txandetan egindako inbertsioa (M€):



Startup nabarmenak (balorazioko lehen bostak):



Emaita eta inpaktuen laburpena (2020-23ko datuak eta BIC Gipuzkoaren 2024ko memoria):

- 158 enpresa sortu dira 2020-2023 aldian; inbertsio metatua 179,8 milioi eurokoa izan da eta hiru urtera metatutako enplegua 2.305 pertsonakoa.
- 37 enpresa sortu dira 2024an: 400 enplegu sortu dira eta 43 milioi eurotik gorako inbertsioa espero da 3 urtera. 9 enpresa IKTen sektorekoak dira, 9 industriakoak, 6 bio arlokoak, 5 Sportech, 4 mugikortasunekoak, eta abar.
- 2024ko startupen finantzaketa: funts publikoetako 23 milioi euro eta funts pribatuak 3,95 milioi euro (165 milioi eurotik gora zorrozkoan)
- EIC Accelerator 2024 ekitaldian hautatutako enpresa: Surphase
- Ekintzaile/Barnetekin programako 23 proiektu lagunduta: 0,95 milioi euro


Startup nabarmenak (enpleguko lehen bostak):



ARABA

Arabako Foru Aldundiaren aurrekontu metatua, ekintzaile berritzaileari laguntzeko (2021-2024): 6,1 M€

- 171 startup
- Kapital-arriskuko 2 inbertsiogile
- 928 pertsona startupetan enplegatuta
- Sektore nagusiak: energia, garraioak, robotika eta osasuna.
- Finantzaketa-txandetan egindako inbertsioa (M€):



Startup nabarmenak (balorazioko lehen bostak):



Startup nabarmenak (enpleguko lehen bostak):



Estatu mailako konparazioan, EAE “Tier-2” ekosistema ekintzailea da, hainbat txosten eta estatistikaren arabera, Madril eta Bartzelonaren atzetik. **Probintziei** begiratuta ([Impact Hub-en ranking-a](#)), Araba lehenengo postuan dago (Madrilen atzetik), Gipuzkoa hirugarren eta Bizkaia seigarren (Girona eta Bartzelonaren atzetik). Eta **hirien** kasuan, Bilbo Europako hiri-hub-en 42. eta 44. posizioetan agertzen da, ekintzaile izateko orduan ikusgarritasun eta osperik handiena dutenen artean (iturria: [Startup Heatmap Europe](#) ranking-a, sortzaileei, ekosistemetan adituak diren pertsoneri, ekintzaileei eta inbertitzaileei egindako inkestetan oinarrituta egina).

TIER-1 Sorkuntza, eskalatzea eta nazioartekotzea

 Madrilgo Erkidegoa 2.754 startup. 167.000 enplegu sortuta. - Arrisku-kapitaleko inbertsioa (2019-2023): 5.815 M€ - Kapital-arriskuko 227 inbertsiogile. Funtsezko sektoreak Fintech Edtech Ehealth Softwarea Energia TEA: 7,8 NECI: 5,3 RIS: 115,7 BPG pc*: 42.198 Startup teknologikoen urteko fakturazioa 3.035 M€ Funtsezko ERAGILEAK WVIZ, BBVA, elewit, Tenity, Cesa, eith, Food, Diga	 Katalunia 2.188 startup. 20.600 enplegu startupek sortuta. - Arrisku-kapitaleko inbertsioa (2019-2023): 5.276 M€ Funtsezko sektoreak Ehealth Business services Softwarea ICT & Mobile E-commerce Foodtech TEA: 7,6 NECI: 5,2 (2020) RIS: 114,9 BPG pc: 34.113 Startup teknologikoen urteko fakturazioa 4.258 M€ Funtsezko ERAGILEAK antai, Tech Barcelona, Sabadell BStartup, Barcelona Active, 4YFN, Connecting Startups, The Collider, EUSKO JAURLARITZA
---	---

TIER-2 Sorkuntza (espezializazio sektorialarekin/teknologikoarekin) eta ontzea

 Valentziako Erkidegoa 1.329 startup. 18.000 enplegu sortuta. - Arrisku-kapitaleko inbertsioa (2019-2023): 515,1 M€ - Kapital-arriskuko 27 inbertsiogile. Funtsezko sektoreak Ehealth SaaS Energia Jobs recruitment Elikadura Segurtasuna TEA: 8,0 NECI: 4,7 RIS: 102,0 BPG pc: 27.360 Startup teknologikoen urteko fakturazioa 1.472 M€ Funtsezko ERAGILEAK LANZADERA, STARTUP VALENCIA, SKYLAB, openio, INN SOMNIA, zubi capital	 Andaluzia 589 startup. 7.391 enplegu startupek sortuta. - Arrisku-kapitaleko inbertsioa (2019-2023): 264,3 M€ Málaga: 340 startup, 4.123 enplegu eta Kapital-arriskuko 6 inbertsiogile. Sevilla: 179 startup. Funtsezko sektoreak Edtech Agrotech Ehealth TEA: 6,8 NECI: 4,5 RIS: 77,1 BPG pc: 23.218 Startup teknologikoen urteko fakturazioa 673,5 M€ Funtsezko ERAGILEAK ANDALUCÍA OPEN FUTURE, Málaga TechPark, arter'a, T, A, iCARTUJAL, E
---	---

 Euskadi 1.187 startup. 8.881 enplegu sortuta. - Arrisku-kapitaleko inbertsioa (2019-2023): 324 M€ - Kapital-arriskuko 28 inbertsiogile. Funtsezko sektoreak 4.0 Industria Energia Ehealth Biotech Elikadura TEA: 5,5 NECI: 5,1 RIS: 119,1 BPG pc: 39.810 Startup teknologikoen urteko fakturazioa 828,7 M€ Funtsezko ERAGILEAK Dealroom plataformaren arabera, Euskadi laugarren autonomia-erkidegoa da arrisku-kapitaleko inbertsioan (2019-2023); El Referente aldizkariaren Enpresa Teknologiko eta Berritzaileen txosten nazionalak Euskadi laugarren hub gisa posizionatzen du oinarri teknologikoko enpresa kopuruari dagokionez (2024).	 Nafarroa 125 startup. 1.056 enplegu startupek sortuta. Funtsezko sektoreak Biotech Ehealth Foodtech TEA: 4,9 NECI: e.e. RIS: 110,4 BPG pc: 36.952 Startup teknologikoen urteko fakturazioa 75,5 M€ Funtsezko ERAGILEAK pin, DINABIDE, anel, hub, EUSKO JAURLARITZA
--	--

ADIERAZLEEN LEGENDA

TEA: jarduera ekintzaile osoaren ehunekoa (GEMek neurtua).
NECI: National Entrepreneurial Context Index, ekosistema ekintzailearen balorazioa (GEMek neurtua).
RIS: Regional Innovation Scoreboard, Europako EIS berrikuntza-adierazlearen eskualdeko luzapena (Europako Batzordeak neurtua).
BPG pc: per capita BPGa.

Harago begiratuz, **nazioarteko ekintzailtza-ranking** nagusiek kalifikazio “handia” ematen diote EAeri, Europako eta munduko beste ekosistema batzuekin alderatuta, ekosistemaren kalitatearen kasuan, “ertaina” ekintzaileek egiten duten balorazioan, eta “txikia” ekintzailtzaileen emaitzei eta inpaktuari buruz.

3.5. EAEko ekintzailetzaren indarguneak eta ahuleziak

Aldian aldi egindako Erakundearteko Planek agerian utzi dute EAEk ekintzailetzarako erronkak dituela, bai gaur egun, bai etorkizunari begira. Kasu batzuetan, erronka horiek beste ekosistema batzuek beste lurralde batzuetan dituzten erronka berak dira.

1. Zeregin bat da ekintzailetzaren **kultura eta balioak** hezkuntza-sisteman eta, oro har, euskal gizartean zabaltzea, eta horretan jarraitu behar da, **proiektuak eta pertsona ekintzaileak erakartzeko eta bertan atxikitze** beharrarekin batera.
2. Ekimen ekintzaileek gaintitu behar dituzten oztopoetako bi dira **finantzaketarako eta merkaturako sarbidea** hobetzea, hasierako faseetatik harago, proiektuek **aurrera egin eta errotu daitezen**, gizartean erdietsi nahi diren inpaktuak eta emaitzak lortzeko.
3. **Eskura dauden tresnak etengabe egokitzen** jarraitu, eta, aldi berean, ekintzailetzako fase eta tipologia bakoitzari lotutako laguntza-programen eta -zerbitzuen **eskaintza koordinatua eta erakargarria** mantendu behar da, lankidetzak publiko-pribatuarekin.
4. **EAE ekintzaile izateko lurralde erakargarri gisa** finkatzeko, beharrezkoa da estrategia egokia eta adostua izatea, ibilbide luzeko ikuspegi zabal batekin, baita kanpoko irudi bateratua edukitzea ere.

Ondoren, labor azalduko dira EAEko ekintzailetzaren indarguneak eta ahuleziak, kontuan hartuta ekosistemaren azterketaren bederatzi dimentsio/ardatzen egitura, eta oinarritzat hartuta elkarriketatutako eragileen ekarpenak (eragile publiko eta pribatuaren 80 ordezkari baino gehiago, ikus [1. eranskina](#)ren zerrenda).

ARDATZA	INDARGUNEAK	AHULEZIAK
1. Ekintzailetzaren kultura eta balioak	- Ekintzailetzaren kultura gero eta gehiago sustatzea hezkuntza-fase guztietan, programa/ekimen berriak sortuz eta curriculumak egokituz (irakasgai berriak eta abar). - Ekintzailetza hedatzea: ekitaldiak (propioak eta estatuko edo nazioarteko erreferentziazko ekitaldiak erakartzea), komunikabideak eta abar. "Ekintzailetza industrial eta teknologikoaren" eredua garatzea, nortasun propioarekin eta tokiko konpromisoarekin.	- Gizartean ekintzailetzaren kultura eskasa izatea eta porrot egiteko beldur handia izatea (biztanleriaren % 53). - Pertsona ekintzaile/enpresariak aintzatespen eta legitimazio nahikoa ez izatea (erreferentziazko ereduak eta arrakasta-kasuak gutxi hedatuta, harreman-sare urria - enpresaburu eta ekintzaileen sare gutxi...). - Lehenengo eta bigarren hezkuntzan, balio ekintzaileak nahikoa ez bultzatzea. - Gazteen hezkuntza-orientazioa eta ekintzailetzaren aldeko apustua (EBkotik~% 40 behera).
2. Giza kapitala trebatzea eta konektatzea	- Ekintzaileen prestakuntza-maila: % 90,6k bigarren hezkuntza/goi-mailako hezkuntza dute. - Ekintzaileen batez besteko adina (44 urte): esperientzia eta ezagutza. - Pertsona ekintzaileei zuzendutako prestakuntza-programen eskaintza (publikoak eta pribatuak).	- Ekintzaileen kolektibo ez-nahikoa, arrazoi nagusiak direla: arazo demografikoa, arriskuari aurre egiteko kultura eta talentuaz jabetzeko "gera", batez ere sortzen ari diren teknologietan eta teknologia digitaletan espezializatutako profiletan. - Jarduera ekintzailearen profesionalizazio eskasa ("nola sortu enpresa bat"). - Pizgarrien eta lan-esparru malguen eskasia, ekintzailetza (eta barne-ekintzailetza) bultzatu ahal izateko enpresa-munduan, ZTB eragileetan, unibertsitateetan eta, oro har, gizartean.
3. Ekintzailetzarako iturriak eta ideiak	- Urtean, iraupen luzeko (baina hazkunde mugatuko) 100 startup inguru sortzen dira erritmo jarraituan, batez ere lehentasunezko sektoreetan. - Ikerketa aplikaturako gaitasunak daude (erreferenteak EBn), eta ezagutza-eragile	- Ekintzailetza-tasa txikia da, oro har, beste eskualde eta herrialde batzuekin alderatuta. - Enpresen eta pertsona autonomoen altak geldirik daude, eta egoera hori ez da nahikoa sarea berritzeko

ARDATZA	INDARGUNEAK	AHULEZIAK
	(zientifiko-teknologiko) eta administrazio publiko batzuek (adibidez, BTV Basque Ventures - BRTA) gero eta ahalegin handiagoa egiten dute transferentzia teknologikoa eratzeke eta OTEB proiektuak sortzeko. Ekintzailetzaren kultura dago kooperatiben munduan, enpresa eragile jakin batzuetan eta abar, xedetzat hartuta berrikuntza, dibertsifikazioa, hazkundera, teknologia eta talentua eskuratzea.	eta enpresak ez suntsitzeko (5.500eko saldo negatiboa 2008tik). - Gutxi dira hazkunde (fakturazioa/enplegua) eta trazio handiko startupak. - Osasun-sistemak, ZTBESk, unibertsitateek, enpresa ertain-handiek eta abarrek ustiari gabeko ekintzailetza-potentziala dago.
4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea	- Tresna publikoak pixkanaka zabaltzea eta indartzea, horren barruan sartuta OTEB ekintzailetzaren hasierako faseetan finkatutako (eta oso ondo baloratutako) tresnak. - Pixkanaka sortzea eta garatzea inbertsio-tresna egokituagoak eta sofistikutuagoak, batez ere publikoak. - Finantzaketa- eta inbertsio-ekimen pribatuak sortu, garatu eta erakartzea.	- Baliabide publikoen erabilera optimizatzea (itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen kultura). - Especializatutako tresna gutxiegia izatea zenbait etapatan (hazkundera, sendotzea), sektoretan (lehentasunezkoak, teknologia kritikoak) eta beharretan (adibidez, transferentzia teknologikoko funtsak etapa goiztiarrentzat). Funtz batzuen tokiko inplikazioa ez izatea nahikoa. - Inbertitzaile pribatuaren presentzia mugatua izatea, eta enpresan <i>venture capital</i> kulturarik ez edukitzea. <i>Business angels</i> irudiaren profesionalizazioa, prestakuntza eta erregulazio falta izatea. - Ekintzailearen aurrezki pertsonalekiko mendekotasuna handia izatea hasierako faseetan.
5. Merkaturako sarbidea	- Enpresa-testuingurua ona da, enpresa- eta industria-sare sendo eta esperientziaduna, enpresa berriekin inplikatzeko dena, sektore publikoarekin lankidetzan aritzen dena eta erakargarria dena kanpotarrentzat. - OTEB proiektu ekintzaileei merkaturako sarbidea, azelerazioa eta abar erraztera bideratutako programa eta azpiegitura publikoak daude. - Estatu-mailan eta nazioartean aintzatespena duten azelerazio-programak daude (adibidez, EKINN+).	- Proiektuak martxan jartzeko oztupoak daude: nolabaiteko burokrazia, BEZaren izapidea eta abar. - Barne-merkatuaren masa kritikoa txikia da. - Proiektu ekintzaileak finkatzeko zailtasunak daude, oztupo hauek direla eta: talentu espezializatua, hazkunde-kapitala eta nazioarteko merkatu berrietarako sarbidea. - Enpresa errotuen eta startupen artean lankidetzan aritzeko zailtasun naturalak daude.
6. Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak	- Programa publiko finkatuen eta ondo baloratuen eskaintza zabala, prozesu ekintzailearen kolektibo, etapa eta beharretara egokitua. - Ekintzaileei laguntza lehenengo etapetan. - Orientazioko, balorazioko eta laguntzako talde teknikoaren esperientzia. - Enpresen iraupen-tasa handiak.	- Sendotze- eta hazkunde-faseetan laguntza eskasa. - Sektore publikoko laguntza-talde teknikoetan jende nahikorik eza ekintzailetzan espezializatuta edo aurretik esperientzia pribaturik duena (ekintzailetzan, inbertsioan...). - Sektore pribatuaren parte-hartze txikia bizkortasuna, merkatu-orientazioa, arriskuak hartzea eta abar lortzeko laguntza-prozesuetan eta -zerbitzuetan. - Laguntza-baliabideen egokitzapen eskasa ekintzailetzaren bilakaerara (proiektuak, profilak...). - Ekosistemaren eragile guztien arteko interakzio eta koordinazio eskasa (ezjakintasuna). - Laguntza-programen inpaktua ebaluatzeko eta neurtzeko praktika hedatu gabeak. - Pertsona bakoitzaren "ekintzailetza-historia bakar" bat partekatzeko aukerarik eza erakundearen artean.

ARDATZA	INDARGUNEAK	AHULEZIAK
7. Zerga-sistema eta araudi erraztaileak	▪ “Ekintzaileen estatutu fiskala”: aldeko zerga-eta arau-giroa dago. ▪ Zerga-sistemari, segurtasun juridikoari eta egonkortasun politikoari buruzko esparru propioa dago. ▪ Benchmarking-eko lana egiten da etengabe, ekintzaitzaren arloko araudia eguneratzeko eta etengabe hobetzeko.	▪ Arau-esparruaren eta ekintzaitzaren errealitatearen etengabeko bilakaera dela-eta, beharrezkoa da —betiere, segurtasun juridikoaren ikuspegitik bikaintasuna mantenduta— une oro berrikustea arlo horretako nazioarteko jardunbiderik onenak, abangoardiako posizioari eusteko. ▪ Beharrezkoa da EAEn eta lurralde historikoetan dagoen zerga-esparru erakargarriaren hedapena sustatzea, eraginkortasun osoa izan dezan. ▪ Ez dago eskumen nahikorik, bisei, erakunde arautzaile propioei eta abarri buruzko araudian. ▪ EAEko ekintzaitzaren errealitate berrira gehiago egokitu behar da 16/2012 Legea.
8. Azpiegitura adimendunak	▪ Laguntza-azpiegituren kopuru handia da, eta lurralde-oreka errespetatzen du. ▪ Gero eta azpiegitura gehiago daude espezializatuta eta enpresa-sarearekin konektatuta. ▪ Esperientzia eta aintzatespena duten azpiegitura pribatuak daude: inkubagailuak, azeleratzaileak eta ezagutza- eta enpresa-eragileen beste unitate batzuk. ▪ Gero eta lotura handiagoa dago nazioarteko erreferentziazko azpiegitura eta eragileekin.	▪ Azpiegitura propioak eta beste eragile batzuen azpiegiturak (batzuetan, proiektu ekintzaileengatik lehiatzen direnak) finantzatzeko erabiltzen diren baliabide publikoen eraginkortasuna hobetzeko modukoa da. ▪ Azpiegituren koordinazioa ez da nahikoa proiektuei etengabe laguntzeko. ▪ Tokiko azpiegiturak gero eta gutxiago erabiltzen dira (pandemiaren boom-aren ondoren). ▪ “Botila-lepoak” daude industria-proiektu berrietarako: lurzoru eskuragarria, potentzia elektrikoa eta abar. ▪ Tren- eta aire-konexioak ez dira nahikoak loturak eta erakarmena sortzeko.
9. Posizionamendua eta ekosistema indartzea	▪ Ekosistemak kanpoko balioespina lortu du, babesen kalitateagatik (administrazio publikoen konpromiso etengabea), eta hori lagungarria da proiektuak, pertsonak eta abar erakartzeko. ▪ Nazioartean gero eta onarpen handiagoa lortu da, ekintzaitza industrial, berritzaile eta teknologikoko hub gisa. ▪ Ekosistema bilakatzen ari da pixkanaka: ahalmenak, interakzioa, gobernantza eta abar.	▪ Kanpora begirako konektibitatea ez da nahikoa, eta markaren (marken) posizionamendua ere ez, proiektu ekintzaileak garatzeko ekosistema erakargarri gisa. ▪ Bidea egiteke dago erakarpenaren arloan (inbertsioa, enpresak, EBOTBak, talentu espezializatua eta abar).

4. Estrategia

4.1. Ikuspegi partekatua: etapa berri bat ekintzailtzari laguntzeko

80ko hamarkadatik, EAEk gero eta osatuagoa eta irekiagoa den **baliabide-multzoa** eraiki du ekintzailtzari **laguntzeko**. Autoenplegua sustatzeari lotuta sortu zenetik, bilakaera izan du ekintzailtza-prozesuaren tipologia eta etapa guztiei arreta emateko.

Hala, gaur egun, eskaintza zabala dugu laguntza-eragile, -programa, -zerbitzu eta -azpiegiturretan, eta horien **kalitatea ezaguna eta bereizgarria** da beste eskualde batzuen aldean, GEM txostenak aspalditik adierazi bezala, eta EAEko eta kanpoko eragile ugari berresten dute.

Hala ere, emaitzei begiratuta, **argi-ilunak** daude. Alderdi positiboak hauek dira: enpresa berrien sorkuntza iraunkorra eta gero eta handiagoa, startupen sorkuntzaren *per capita* tasa, genero-arrakala murriztea edo proiektuen iraupena. Alderdi negatiboak, aldiz, ekintzailtza-tasa orokorra edo porrotarekiko beldurra. Gainera, ekintzailtzaren errealitatea aldatzen ari da, eta **laguntza-baliabideak pixkanaka egokitu** behar dira.


Ekintzailtzak **funtsezko tresna izan behar du EAEren eraldaketa industrial jasangarrirako**, enpresa berritzaile berriak sortuz teknologia kritikoetan, lehentasuneko sektoreetan eta balio-kate estrategikoetan, Euskadi 2030 Industria Planarekin lerrokatuta, EAEko berrindustrializazioa eta autonomia estrategikoa bultzatzeko.

Horrek guztiak, azken batean, adierazten du beharrezkoa dela EAEn ekintzailtza bultzatzeko **etapa berri bat irekitzea**, hartara **inpaktuak areagotzeko, emaitzak hobetzeko eta laguntza-sarea optimizatze**ko.

4.2. Helburu eta lehentasun estrategikoak

EEP 2028ren azken helburua da ekintzailtza bere aldaera guztietan modu koordinatuan sustatzea, proiektu, enpresa eta enplegu lehiakor eta jasangarri **gehiago eta hobeak sortu eta hazteko**, EAEn garapen jasangarri eta inklusiboko etapa berri baten eragile izan daitezen.

Horretarako, EEPk **hiru helburu estrategiko partekatu** definitzen ditu, **15 lehentasun estrategikotan** banatuta.



Ekintzailetzaren ikuspegi integral batetik eta ekosistemako eragile publiko eta pribatuen laguntzarekin, planak, eragile parte-hartzaileen bitartez, **izaera unibertsaleko laguntza eta baliabideen multzo** bat eskaintzen du, bideratuta dagoena **kolektibo, motibazio, sektore, etapa eta geografia guztien ekimenak** sustatzera.

Eskaintza integral hori gogoratzeaz gain, EEP saiatzen da laguntza-eragileak orientatzen, eta ekintzailetza bultzatzeko **etapa berri honetarako lehentasunezko “foku”** batzuk proposatzen ditu, bat eginda entzuteko prozesuaren eta diagnostikoaren ondorioekin.

	Kolektiboak	Motibazioak eta sektoreak	Etapak eta epeak	Geografiak
“Lehentasun-fokuak”	- Gazte ekintzaileen harrobia (orientazio ekintzailea, batez beste, % 40 baino txikiagoa da EBn) - Biztanleria migratzailea (EAEra urtean 20.000 pertsona iritsiko direla zenbatesten da) - Zientzia, teknologia eta berrikuntzako, unibertsitateko eta osasuneko sistemetako langileak - Enpresaren munduko profesionalak	- Biztanleria migratzailearen beharrak eragindako ekintzailetza (arriskuarekiko higuin txikiagoa) Lehentasunezko sektoreak: IRABAZI eta HAZI Trantsizio hirukoitzaren aukerak Deeptech teknologiak (“etorkizuneko industriaren” oinarria)	- Oinarri teknologikoko enpresa berritzailerien proiektuak balorizazio teknologikoen bidez “eraikitzea” (Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea, unibertsitateak, osasuna) - Forma juridikoa: kooperatiba / lan-sozietate mugatuak “Heriotzaren haranetan” laguntzea - Tokiko startupen azelerazioa - Potentzial handiko proiektuen hazkundea eta eskalatzea Erakartzea (proiektuak, pertsonak, inbertsioa eta ekitaldiak) - Belaunaldien arteko erreleboa	- Ekintzailetza hiritarraren eta landatarraren arteko oreka - Estatuko “lehiakideen” aurreko posizionamendu bereizgarria indartzea: Valentzia, Málaga... Abangoardiako nazioarteko hubekiko konexioa, eragile espezializatuekin lankidetzan jarduteko eta erakartzeko

4.3. Ardatzak eta lan-ildoak

Hurrengo orrialdeetan, 2025-2028 eperako proposatutako ardatzak eta lan-ildoak azalduko dira. Ekosistemaren azterketarako bederatzi dimentsioen/ardatzen egiturari jarraituz, dimentsio/ardatz bakoitzerako hauek azalduko dira:

- Ardatzaren helburua.
 - 16/2012 Legearekin erlazionatutako helburuak eta horiei lotutako adierazleak.
 - Azpiardatzak edo lan-eremuak.
 - Azpiardatz bakoitzerako proposatutako lan-ildoak.
- Inplikaturako eragile publiko eta pribatuak.

a) 1. ardatza: Ekintzailetzaren kultura eta balioak

Helburua: Ekintzailetzaren kultura, balioak eta adibideak zabaltzea hezkuntza-sisteman eta EAEko gizartean, aberastasuna sortzea eta banatzea sustatzeko.

16/2012 Legearen helburuak	Lotutako adierazleak
- Ekintzaileei laguntzeko egungo politikak koordinatzea. - Giza kapitala, talentua eta sormena sustatzen laguntzea.	- Ekintzailetza-sariei mobilizatutako proiektuak. - Ekintzaile potentzialak. - Porrotarekiko beldurra. - Inpaktu soziala/ingurumen-inpaktua lehenestea.

Azpiardatza eta lehentasunak

1-Hezkuntza-sistema	Proaktibitate-balioak, ekimenaren zentzua, enpresa-ekimena... sustatzea, ekonomia-eta gizarte-sarea berritzeko eta jasangarri egiteko mekanismo gisa. Curriculuma etengabe egokitzea, ekintzailetzaren balio eta gaitasunak hezkuntza-sisteman sartzeko, bai ikasleen bai irakasleen prestakuntzan (proiektukako lana, eremukakoa eta abar). Ikasleei orientazio akademikoa, profesionala eta pertsonala ematea txiki-txikitatit, enpresak sortzeko proaktibitatea bultzatzeko.
2-Sektoreak eta kolektiboak	Ekintzailetzari buruzko hautazko irakasgaiak, lehiaketak eta sariak bultzatzea hezkuntza-etapa guztietan (lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, LH eta unibertsitatea). Ekintzailetzaren kultura sustatzeko sektore-programak diseinatzea, gazteei zuzenduak, sektore- eta hezkuntza-eragileen artean (adibidez, industria, merkataritza, turismoa eta abar)
3-Erreferentzia-ereduak	- Ekintzailetzaren kultura sustatzea enpresa-kolektiboetan, ezagutza-eragileetan (zentro teknologikoak eta unibertsitateak), administrazio publikoetan eta abarretan. Ekintzaileak eta enpresaburuak balioestea eta gizartean aintzakotzat hartzea.
4-Sareak eta foroak	Enpresaburuen eta ekintzaileen harreman-sareak egituratzea.
5-Inpaktua sortzen duten ekitaldiak	Ekintzailetzako erreferentziazko ekitaldiak antolatzea / erakartzea.
6-Bitartekoak eta kanalak	Komunikabideekin lankidetzan aritzea, proiektu eta pertsona ekintzaileen arrakasta-kasuak, ereduak eta adibideak zabaltzeko, eta errealtatearekin bat datorren irudia ematea. Ikusaraztea zer-nolako balio soziala duten ekintzailetzek (ekintzailetza berritzaileak eta teknologikoak, hurbilekoak, oinarritzko zerbitzuak, negozio digital txikia, kolektiboa —kooperatibak eta lan-sozietate mugatuak— ...) benetako lan-aukera eta alternatiba gisa, nortasun propioarekin eta tokiko konpromisoarekin.

Inplikaturako eragileak

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saila (EJ); AFaren Ekonomia Garapena eta Berrikuntza; BFaren Ekonomia Sustatzeko Saila; BFaren Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila; GFaren Ekonomia Sustapena eta Proiektu Estrategikoak; Lanbide Heziketako Sailburuordetza - Tknika (EJ); Hezkuntza Politiketako Sailburuordetza (EJ); Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza (EJ); Donostia Sustapena (EKINN+); beste udal eta garapen-agentzia batzuk; EAEko unibertsitateak (EHU, MU, UD, Tecnun, BCC, EUNEIZ); EAEko merkataritza-ganberak; BRTA eta ZTBES; Innobasque; ADEGI, CEBEK, SEA, Ajobask, Aspegi; azeleratzaile pribatuak, hala nola BerriUp, Metxa eta abar; komunikabideak.

b) 2. ardatza: Giza kapitala**Helburua:** Pertsona ekintzaileak erakartzea, gaitzea eta atxikitzea bultzatzea.

16/2012 Legearen helburuak	Lotutako adierazleak
- Ekintzaileei laguntzeko gaur egun dauden politikak koordinatzea. - Giza kapitala, talentua eta sormena sustatzen laguntzea. - Talentuaren etorrera sustatzea.	- TEA goi-mailako ikasketekin (%) - Ekintzailetza-prestakuntza jaso duten pertsonak. 5 langiletik gorako negozio ekintzaileak (%) eta 5 pertsonatik gora espero den enplegua 5 urtera TEA (%)

Azpiardatza eta lehentasunak

1-Erakarpena	Migrazio- eta erakarpen-politikak bateratzea (ikasleak, langileak, ZTB profil espezializatuak, eta abar) ekintzailetzari (laguntza) ematen diotenekin. - Sektoreko eta teknologiko lehentasunekin bat datozen OTEBen erakarpena indartzea. Profil espezializatuak eta atzerriratutako ekintzaileak erakartzea proiektu ekintzaile "bultzatzaileetarako".
2-Kontratazioa	Pertsonak kontratatzea (bekak, praktikak, masterrak, doktoregaiak eta abar) jarduera ekintzaileak sustatzen eta garatzen laguntzeko enpresa sendotueta, ezagutza-eragileetan eta abarretan. Lan-esparru erakargarri eta malguak diseinatzea (pizgarriak, eszedentziak, prestakuntza, itzulera...), ekintzaileak (eta barne-ekintzaileak) errazago ager daitezen enpresaren munduan (zuzendariak eta erdi-mailako agintariak), ZTBko eragileetan, unibertsitateetan eta, oro har, gizartean.
3-Prestakuntza	"Ekiten ikasteko" gaitasuna, hainbat sektoretako (nekazaritza, merkataritza, eta abar) eta kolektibotako (ezagutza-eragileak, finkatutako enpresak, eta abar) ekintzaileei zuzendua, eta talde kalteberetara egokitua (adibidez, langabezia, pertsona migratzaileak). - Unibertsitate-sistemak eta eragile espezializatuak eskaintako prestakuntza espezializatua, ibilbide akademikoak eta ekintzailetza-programak (graduak, masterrak...). Ekintzailetzari laguntzeko eta orientazioa emateko taldeen etengabeko ikaskuntza eta gaitasunen garapena (ekintzailetza-tipologia berriak, beharrak, kolektiboak, teknologiak...), eta dauden tresnak eta baliabideak hobeto ezagutzea.
4-Konexioak	- Talde ekintzaileen (ekintzaileak, potentzial handiko enpresa berriak, business angels, F/I eragileak eta abar) lotura egituratua indartzea (sareak, foroak, elkarteak...), lankidetzak, "eraikuntza" (proiektuak), inbertsioa, trebakuntza, erakarpena... errazteko. Startupen EAEko elkarte bat sustatzea, aukera emango duena kolektiboarekin elkarriketa egituratua izateko, sarea sendotzeko, lankidetzan aritzeko eta abar.
5-Erreleboa	Neurri berrien bidez (datu-baseak, bitartekaritza, kontratazioa eta "proto-ekintzaileak" ahokatzeko eta abar), belaunaldien arteko erreleboa eta enpresa-transmisioa bultzatzea zenbait sektoretan. - Enpresetan belaunaldien arteko erreleboa bultzatzea, prestakuntza dualaren bidez.

Inplikaturako eragileak

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saila (EJ); AFaren Ekonomia Garapena eta Berrikuntza; BFaren Ekonomia Sustatzeko Saila; BFaren Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila; GFaren Ekonomia Sustapena eta Proiektu Estrategikoak; Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila (EJ); Elikadurako eta Landa Garapeneko Sailburuordetza - HAZI (EJ); Lanbide Heziketako Sailburuordetza - Tknika (EJ); Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza (EJ); IHOBE (Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saila, EJ); udalak eta garapen-agentziak; EAEko unibertsitateak (EHU, MU, UD, Tecnun, BCC, EUNEIZ); EAEko merkataritza-ganberak; BRTA eta ZTBES; Innobasque; Finkatutako enpresak; enpresa-eragileak (elkarteak, klusterrak).

c) 3. ardatza: Ekintzailetzarako iturriak eta ideiak

Helburua: Mota guztietako proiektu ekintzaileak sustatzea, apustua eginda OTEBei (lehentasunezko sektoreak), enpresa ekintzaileei eta behar handienak dituzten kolektiboei/sektoreei laguntzeko.

16/2012 Legearen helburuak	Lotutako adierazleak
- Enpresak sortzen laguntzeko esparru ekonomikoa sustatzea. - Ekintzaileei laguntzeko egungo politikak koordinatzea. - Enpresen sorrera eta hazkundea bultzatzen laguntzea.	- Laguntza publikoarekin sortutako enpresak. - Pertsona autonomoen altak. - Merkataritza- eta gizarte-enpresen altak. - Startup aktiboen kopurua. - ZTB eragileen spin-off-ak eta enpresa proiektu berriak. - TEA (generoaren arabera).

Azpiardatza eta lehentasunak

1-Kolektibo zaurgarriak	1. Laguntzea kolektibo zaurgarrietan edo bazterketa-arriskuan daudenetan proiektu ekintzaileak sortzen eta garatzen, bermatuta aukera-berdintasuna eta finantzaketa lortzeko aukera.
2-Migratzaileak	2. Ekintzailetza sustatzea, pertsona migratzaileen gizarte-inklusiorako eta laneratzeko bitarteko gisa, eta laguntza-baliabideak modu koordinatuan egokitzea: gaikuntza, sektoreko (adibidez, merkataritza) eta negozioko orientazioa, izapideak, mikrofinantzaketa...
3-Emakumeak eta gazteak	3. Emakumeen ekintzailetza babestea eta ikusaraztea , aholkularitza, prestakuntza, networking, sari... bidez. 4. Gazteei proiektuak martxan jartzen eta finkatzen laguntzea, administrazio-kargak murrizteko eta F/I programetan sartzeko.
4-Lanbide Heziketa eta Unibertsitateak	5. LHn ekintzailetza laguntzeko finkatutako sistema indartzea, barnean hartuta ekintzailetzaren kultura sustatzea eta negozio-sorkuntzan eta erreleboan lagun egitea. 6. Unibertsitateko ikasleen ekintzailetza bultzatzea, arreta berezia jarrita eragin hirukoitzeko proiektuetan, maila berritzaile handian eta prestakuntza handiko pertsona-taldeetan (graduak, masterrak eta PhD), ahaztu gabe STEM edo enpresakoak ez diren diziplina akademikoen potentziala.
5-Enpresa	7. Irakasleen arteko transferentzia eta ekintzailetza bultzatzea, eta, horretarako, aukerak balioestea. 8. Enpresa bultzatzaileetan eragina izango duten enpresa-proiektu berriak sortzea.
6-Lehentasuna duten sektoreak	9. Lehentasuna duten sektoreetan oinarri teknologikoko enpresa berritzaileen sorrera eta hazkundea bultzatzea, etapa eta behar bakoitzera egokitutako programen bidez, eta, aldi berean, sektore bakoitzeko balio-kateak osatzen saiatzea, kanpokoekiko mendekotasuna murrizteko. 10. Trantsizio hirukoitzarekin lotutako aukerak eta negozioarako nitxo berriak zabaltzea.
7-ZTBES eta osasun-sistema	11. Ezagutza-eragileak sentsibilizatzea, hasieratik merkatu-irtenbideak garatzera bideratzeko ikerketa , zientzia, teknologia eta berrikuntzaren EAEko sistematik datozen proiektu ekintzaileen kopurua eta kalitatea handitzeko. 12. ZTBko eragile guztiak koordinatzea, batez ere zientzialariak (unibertsitateak, BERCak, CICak), OTEBei laguntzeko dauden tresnetan eta etorkizunean garatuko direnetan errazago txertatzeko. 13. Ekintzailetza zientifiko-teknologikoari laguntzeko esparru bat sustatzea, honako hauen bidez: pizgarriak, gaikuntza, laguntza-egiturak, liberazio-eszedentziak, ekintzaileen bilaketa, finantzaketa, spin-off-en jabetzako partaidetza eta abar. 14. Eremu teknologiko kritikoaren garapena bultzatzea. 15. Berrikuntza eta ekintzailetza teknologikoa sustatzea EAEko osasun-sistemaren inguruan , lege-, finantzaketa- eta metodologia-esparru berri baten (Erosketa Publiko Berritzailea (EPB) eta merkaturatu aurrekoa) eta laguntza-egituren (datua eskuratzeko bulegoa) bidez, Osakidetza-erantzako eta ekintzaileentzako bermeekin.
8-Ekonomiaren gainerako sektoreak	16. Ekimen ekintzaileen sorrera, hazkundea eta jasangarritasuna laguntzea ekonomiaren sektore guztietan (nekazaritzako elikagaiak, merkataritza, turismoa, kultura- eta sorkuntza-industriak, hirugarren sektore soziala...) , EAEko ekosistemaren eta enpresa-sarearen baliabideetan eta gaitasunetan oinarritutako espezializazio sektorial/teknologiko argiaren alde lan eginda. 17. Ekintzailetza kolektiboa balioan jartzea eta sustatzea gizarte-ekonomiaren forma juridikoetan (kooperatibak eta lan-sozietate mugatuak) , forma juridiko alternatibo gisa (ekimen berrietan eta belaunaldi-erreleboan), enpresa-eredu arduratsuago, erresilienteago eta errotuagoekin. 18. Negozio berrien eta ekintzailetza-aukeren ideiak bilatzea eta zabaltzea , joerei, sektore eta teknologia berriei, nazioarteko negozio-eredu arrakastatsuei eta abarrei lotuta.

Inplikaturako eragileak

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saila (EJ); AFaren Ekonomia Garapena eta Berrikuntza; BFaren Ekonomia Sustatzeko Saila; BFaren Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila; GFaren Ekonomia Sustapena eta Proiektu Estrategikoa; Enpresa eta Berrikuntza Zentroak; Beaz Bizkaia; Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila (EJ); Osasun Saila (EJ); Lanbide Heziketako Sailburuordetza - Tknika (EJ); Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza (EJ); IHOBE (Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saila, EJ); Lanbide (Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila (EJ)); udalak eta garapen-agentziak; EAEko unibertsitateak (EHU, MU, UD, Tecnun, BCC, EUNEIZ); EAEko merkataritza-ganberak; BRTA eta ZTBES; Innobasque; ADEGI, CEBEK, SEA, Ajebasque, Aspegi; azeleratzaile pribatuak, hala nola BerriUp, Metxa eta abar; Finkatutako enpresak; enpresa-eragileak (elkartek, klusterrak).

d) 4. ardatza: Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea

Helburua: Proiektu berriei finantza- eta inbertsio-laguntza (F/I) bermatzea, etapa bakoitzari egokitutako tresnen bidez, eta aldibereko inbertsio publikoa eta pribatua sustatzea.

16/2012 Legearen helburuak	Lotutako adierazleak
- Enpresak sortzen laguntzeko esparru ekonomikoa sustatzea. - Enpresen sorrera eta hazkundera bultzatzen laguntzea. - Finantzaketa erraztea. - Finantzaketa-ildoen sorrera sustatzea.	- Inbertsio publiko osoa startupen finantzaketa-txandetan. - Inbertsio pribatu osoa startupen finantzaketa-txandetan. - Ekintzaileak berak ordaintzen duen hazi-kapitala (%) - EAEko startupen balorazio osoa.

Azpiardatza eta lehentasunak

1- Informazioa eta orientazioa	1. Eragile publiko eta pribatuek ematen dituzten dirulaguntzen, finantzaletaren eta inbertsioaren aukerei buruzko informazioa eta laguntza ematea pertsonen eta proiektuen.
2- Hasierako premia ekonomikoak	2. Pertsona ekintzaileen kolektiboen (migratzaileak, gazteak, langabezia dauden pertsonak) hasierako premia ekonomikoei laguntzeko tresnak sustatzea eta zabaltzea, langabeziaren kapitalizazioaren, mikrokredituen, dirulaguntzen, beken eta abalen bidez, finantzaketa eta likidezia eskuratzeko, eta aurrezki pertsonalekiko mendekotasuna murrizteko.
3- Finantzaketa eta inbertsio publikoa eta publiko-pribatua	3. Proiektu ekintzaileen lehentasunezko beharrak (aktibo finkoak, kapital zirkulatzailea, eta abar) finantzatzeko laguntzea, bereziki hasierako faseetan eta lehentasuna duten sektoreetan, hainbat kreditu-ildoren eta eragile publiko eta pribatuen tresnen bidez. 4. OTEBei laguntzeko tresnak eta prozesu publikoak koordinatzea eta doitzea; ekintzailetza-prozesuaren fase bakoitzean, inbertsio-tesiak eta startupentzako gutxieneko baldintzak argitzea; itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen erabilera mugatzea; eta lagundutako ekimenen kalitatea, hazkundera eta eragina handitzeko, baterako inbertsio publiko-pribatua eta arrisku partekatua bultzatzea. 5. Estatuan eta European dauden eragile, programa eta funts publikoetarako sarbidea. 6. F/I tresna espezializatuak sortzea, eremu batzuei babesa emateko orduan dauden gabeziak betetzen laguntzeko. Horien artean dira: sektore jakin batzuk (energia), teknologiak (adibidez, deeptech, biotech...), etapak (adibidez, early stage, mailan gora egitea...), proiektuak (adibidez, jakintza-eragileen spin off-ak), kolektiboak eta abar.
4- Iturri eta tresna pribatuak	7. EAEn dauden funts pribatuek, family office-ek, enpresa-kapitalak eta beste eragile pribatu batzuek (banku-fundazioak, BGAEak...) tokiko inbertsio-dinamismoa bultzatzea (hasierako faseetan) , eta sektore publikoak sare horrekiko lankidetzari handiagoa sustatzea, lankidetzari-ekimenen laguntzarekin, hala nola BASQUEFIK klusterra eta AFV (Euskal Finantza Aliantza). 8. Kanpoko funts eta eragile espezializatuak erakartzea edo haiekin lankidetzan aritzea , tokiko eragileek konpontzen zailak diren premia espezifikoak dituzten ekintzailetza-prozesuko sektore, teknologia eta etapetarako (adibidez, biotech).
5- Inbertsio-kultura	9. EAEko gizartean inbertsioaren eta arriskuaren kultura indartzea, BASQUEFIK Klusterraren eta hezkuntza-sektorearen eragile nagusien eskutik. 10. Business angels pribatuen irudia sustatzea , haien erregulazioa, asoziazioa, lankidetzari (adibidez, inbertsio sindikalak, "argiketa" publikoa) eta prestakuntza espezializatua bultzatzeko.

Inplikaturako eragileak

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saila (EJ); AFaren Ekonomia Garapena eta Berrikuntza; BFaren Ekonomia Sustatzeko Saila; BFaren Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila; GFaren Ekonomia Sustapena eta Proiektu Estrategikoak; Enpresa eta Berrikuntza Zentroak; Seed Capital Bizkaia; Bizkaia Mikro; Elikadurako eta Landa Garapeneko Sailburuordetza - HAZI (EJ); Lanbide (Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila (EJ)); udalak eta garapen-agentziak; EAEko unibertsitateak (EHU, MU, UD, Tecnun, BCC, EUNEIZ); Ekosisteman dauden finantzaketa- eta inbertsio-eragileak (ikus F/I-ren mapa); ADEGI, CEBEK, SEA, AjeBask, Aspegi; azeleratzaile pribatuak, hala nola BerriUp, Metxa eta abar; Corporate venturing edo venture client-eko unitateak, besteak beste, Iberdrola, Mondragon, Repsol, CAF, GH, Dominion eta Ormazabal enpresenak; ENISA, CDTI, EIC Accelerator... eta Europako baliabide berriak.

e) 5. ardatza: Merkaturako sarbidea

Helburua: Merkatura azkar sartzea, proiektu ekintzaileak bizkortzea eta nazioartekotzea erraztuko duten mekanismoak finkatzea.

16/2012 Legearen helburuak	Lotutako adierazleak
- Enpresak sortzen laguntzeko esparru ekonomikoa sustatzea. - Ekintzaileei laguntzeko egungo politikak koordinatzea. - Enpresen sorrera eta hazkundera bultzatzen laguntzea.	BIND programaren kontratuak.

Azpiardatza eta lehentasunak

1-“Erreferentziazko bezeroak”	1. Merkatura sartzea errazten duten programak indartzea (adibidez, berrikuntza irekia) eta proiektu ekintzaileei “lehenengo bezeroak” bilatzea , batez ere lehentasuna duten sektoreetan, “bezero” diren enpresen sentsibilizazioa eta inplikazioa sustatuta.
2-Kontratazioa eta obra publikoa	2. Lege-, finantza-, metodologia- eta antolaketa-esparruak egokitzea, kontratazio publikoko (adibidez, klausulak, sortatan banatzea, kaudimen-betekizunak eta abar) eta erosketa publikoko praktikak orokortzeko. Horrela, aprobetxatu ahal izango da EAEko Administrazio Publikoak berrikuntzaren eta teknologiaren (bere erronka eta beharrei erantzutera bideratuta) kontratista eta kontsumitzaile gisa duen gaitasuna (bere erronka eta beharrei erantzutera bideratuta), eta, aldi berean, sortu ahal izango dira enpresa berrientzako merkatu eta aukera berriak.
3-Proiektuen sorkuntza	3. Sorkuntza-programa publikoak profesionalizatzea eta indartzea eta proiektuei laguntzea (venture building) , garapen teknologikoak, profil espezializatuak eta finantzaketa/kapitala bateratzea ahalbidetzen dutenak, proiektu ekintzaile berriak sustatzeko. Arreta berezia jarri behar da lehentasuna duten sektoreetan eta jakintza-eragileek sortutako spin off-etan (adibidez, Basque Tek Ventures – BTV indartzea zentro teknologikoetarako, BERCetarako eta unibertsitateetarako). 4. Sektore edo teknologia jakin batzuetan proiektuak sortzen espezializatuta dauden tokiko eragile pribatuak sustatzea (adibidez, deeptech), eta eragile pribatu horien eta eragile publikoen arteko lankidetzaz erraztea.
4-Proiektuak azeleratzea	5. Azelerazio-programa publikoak profesionalizatzea eta espezializatzea (lehentasuna duten sektoreak) , sektore pribatuko eragile adituen eskutik (tokikoak eta kanpokoak), laguntzeko tokiko enpresa berriak garatzen, merkatuan sartzen eta hazten. 6. Tokiko azeleratzaile pribatu ezagunak sustatzea, bidea emanda eragile pribatu horien eta eragile publikoen arteko lankidetzari. 7. Diseinatzea ekintza eta azelerazio-programa berriak , lagungarriak izan daitezkeenak atzerriko proiektu ekintzaile azeleratuak erakartzen eta atxikitzen .
5-Beste lurralde batzuetara heltzea	8. EAEko startupen nazioartekotzea indartzea sendotze- eta mailakatze-faseetan, laguntza jasota eragile publikoetatik (adibidez, BTIren, Kanpo Ekintzaren eta Euskadi Globalaren eskutik bilerak antolatzea xede diren herrialdeetan) eta pribatuetatik (adibidez, klusterrek edo nazioarteko bezeroekin finkatutako enpresek enpresa berriei aholkuak ematea).
6-Elkarlaneko ekintzailetza	9. Elkarlaneko ekintzailetzako ekimenak garatzen laguntzea (pertsonen, enpresa berrien, finkatutako enpresen, ezagutza-eragileen eta abarren artean), jarduera berria sortzeko, dimentsioa eta erresilientzia handitzeko eta merkatuan errazago sartzeko.

Inplikaturako eragileak

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saila (EJ); AFaren Ekonomia Garapena eta Berrikuntza; BFaren Ekonomia Sustatzeko Saila; GFaren Ekonomia Sustapena eta Proiektu Estrategikoak; Osasun Saila (EJ); Lanbide Heziketako Sailburuordetza - Tknika (EJ); Donostia Sustapena (EKINN+); beste udal eta garapen-agentzia batzuk; EAEko unibertsitateak (EHU, MU, UD, Tecnun, BCC, EUNEIZ); BRTA eta ZTBES; azeleratzaile pribatuak, hala nola BerriUp, Metxa eta abar; venture client-eko unitateak, besteak beste, Iberdrola, Mondragon, Repsol, CAF, GH, Dominion eta Ormazabal enpresenak; enpresa-eragileak (elkarteak, klusterrak).

f) 6. ardatza: Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak

Helburua: Laguntzarako programen eta zerbitzuen eskaintza argia eta erakargarria izatea, premia eta etapa bakoitzari egokituia, erakundearen arteko koordinazioaren eta lankidetzaren publiko-privatuaren bidez.

16/2012 Legearen helburuak	Lotutako adierazleak
- Ekintzaileei laguntzeko egungo politikak koordinatzea. - Enpresen sorrera eta hazkundearen bultzatzea.	- Eragile publikoen laguntzarekin egindako bideragarritasun-planak. - Aholkularitza jaso duten enpresen hiru urtetik gorako iraunkortasuna. - Enpresaburuen populazio finkatua.

Azpiardatza eta lehentasunak

1.- Enpresa eta Berrikuntza Zentroen zerbitzuak	Finkatzea Enpresa eta Berrikuntza Zentroek duten zeregina eta posizionamendua OTEBen ekintzailetzari laguntzeko ibilbidean sartzeko bide bakar gisa, sendotuta tokiko beste laguntza-eragile batzuekin (eta kanpoko eragile espezializatuarekin) duten harremana, eta pixkanaka egokituta haien zerbitzu- eta profil-zorroa, laguntzeko proiektu hobeak eraikitzen eta ibilbide osoan haiei laguntza ematen. - Potentzial eta eragin handiko OTEB proiektuen sorreran, tutoretzan eta azelerazioan espezializatutako taldeak sortzea, bat eginik lehentasun estrategikoekin (sektoreak, teknologiak, proiektu-motak, eta abar) eta oinarri hartuta xede diren startupen ezaugarriak.
2-Programa eta zerbitzu egokituak	- Egokitzea eta hobetzea laguntzarako programa eta zerbitzu publikoak, kontuan hartuta tokiko nahiz erakarrizko proiektu eta kolektibo ekintzaileen beharrak, eta sustatzea publikoaren arteko koordinazioa, inguruko baliabideen aprobetxamendua eta proiektu bakoitzaren inpaktuaren eta emandako laguntzen kalitatearen ebaluazioa. Programa espezifiko berriak sortzea, administrazio publikoen artean koordinatuak eta sektore pribatuaren parte-hartzearekin, laguntzeko potentzial eta inpaktu handiko proiektuak hazten eta mailakatzen, arreta berezia jarrita lehentasuna duten sektoreetan eta teknologia kritikoetan. Eragile publikoen (eta, hala badagokio, pribatuen) arteko lankidetzaren estrategikoa eta operatiboa indartzea, baliabideak osatzeko, laguntzak koordinatzeko eta lagundutako proiektu ekintzaileen bilakaeraren baterako jarraipena bultzatzeko. Zerbitzu aurreratuko enpresen tokiko sarean ekintzailetzako espezializazioa bultzatzea, laguntza hobe emateko proiektu ekintzaile berriei.
3-Informazio eskuragarria	Ekintzailetzarako dauden programa, zerbitzu eta laguntzei buruzko informazio-puntuak lotzea (adibidez, eskualde, lurralde eta sektore mailako atariak, hala nola Up!Euskadi, Araba Ekinean edo Onekin), argitzeko dauden baliabide eta ibilbideak eta ziurtatzeko pertsona eta proiektu ekintzaileen beharrak hobeto asetzen direla.
4-Izapide arinak	Jarduera ekintzailearekin lotutako prozesu administratiboak arintzea: egon daitezkeen oztopoak kentzea; izapide elektronikoak, prozesuen sinplifikazioa eta malgutzea (laguntzak eskuratzea) eta hizkuntza bultzatzea; lotutako burokrazia murriztea, eta epeak hobetzea (BEZaren kudeaketa, adibidez), besteak beste.

Inplikaturako eragileak

AFaren Ekonomia Garapena eta Berrikuntza; BFaren Ekonomia Sustatzeko Saila; BFaren Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila; GFaren Ekonomia Sustapena eta Proiektu Estrategikoak; Enpresa eta Berrikuntza Zentroak; Beaz Bizkaia; Elikadurako eta Landa Garapeneko Sailburuordetza - HAZI (EJ); Lanbide Heziketako Sailburuordetza - Tknika (EJ); Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza (EJ); Enplegu Zuzendaritza (EJ); udalak eta garapen-agentziak; EAEko unibertsitateak (EHU, MU, UD, Tecnun, BCC, EUNEIZ); EAEko merkataritza-ganberak; BRTA eta ZTBES; Innobasque; ADEGI, CEBEK, SEA, Ajeabask, Aspegi; azeleratzaile pribatuak, hala nola BerriUp, Metxa eta abar.

g) 7. ardatza: Zerga-sistema eta araudi erraztaileak

Helburua: Zerga-, arau- eta administrazio-esparru eguneratua izatea, ekintzailetza sustatzen duena eta erakargarria dena, eta ekitatea, kohesioa eta segurtasuna bermatzen dituen.

16/2012 Legearen helburuak	Lotutako adierazleak
- Enpresak sortzen laguntzeko esparru ekonomikoa sustatzea. - Ekintzaileei laguntzeko egungo politikak koordinatzea. - Enpresen sorrera eta hazkunde bultzatzen laguntzea.	Ekintzailetzari laguntzeko neurrien inpaktu fiskala, euroak milioitan.

Azpiardatza eta lehentasunak

1-Zerga-sistema ekintzailetzaren zerbitzura	Ekintzailetza bultzatzeko zerga-esparrua eguneratzea, apurka-apurka jasotzeko ekintzailetzaren bilakaeraren ondorioz sortzen diren premia berriak, eta beste lurralde batzuetako errealitateetatik bereizteko eta horiek erakartzeko elementu gisa jarduteko. Hiru lurralde historikoetan, ekintzailetzari laguntzeko zerga-esparrua eguneratzea eta hobetzea.
2-Araudia eguneratzea	Legeria aurreratua sustatzea, ekintzailetzari oztopoak kentzeko eta etorkizunean lehentasuna izango duten sektoreetan ekintzailetzarako aukera-nitxo berriak sortzea bultzatzeko. Ekintzailetza kontuan hartzea lege berrietan eta EAEko gizartearen eta ekonomiaren hainbat arlo arautzen dituzten arauetan, garapen sozioekonomikoaren sustatzaile gisa.
3- Zerga- eta arau-esparrua sustatzea	Ekintzailetzari laguntzeko neurriak eta zerga-onurak zabaltzea eta jakinaraztea gure inguruko ekintzaileei. - Hiru lurralde historikoetan dagoen zerga-esparrua sustatzea, posizionamendurako funtsezko elementu gisa. - EAEko segurtasun juridikoaren esparrua sustatzea, proiektu berriak abian jartzeko elementu bereizgarri gisa. - Ekintzailetzan inplikaturako eragile pribatuei (sustatzaileak, inbertitzaileak, eta abar) aktiboki entzutea, ekintzailetzari laguntzeko zerga- eta arau-esparrua hobetzeko proposamenak biltzeko.

Inplikaturako eragileak

Foru Ogasunak (AFA, BFA eta GFA); Ogasun Sailburuordetza (EJ); EAEko erakundeetako sail eta arlo guztiak.

h) 8. ardatza: Azpiegitura adimendunak

Helburua: Laguntzarako azpiegitura espezializatuen eskaintza eta lotura indartzea, eta ahalik eta gehien aprobetxatzea.

16/2012 Legearen helburuak	Lotutako adierazleak
- Ekintzaileei laguntzeko egungo politikak koordinatzea. - Enpresen sorrera eta hazkunde bultzatzen laguntzea. - Talentuaren etorrera sustatzea.	Azpiegitura publikoetan inkubatutako enpresak.

Azpiardatza eta lehentasunak

1-Azpiegiturak sustatzea	Kolektibo eta proiektu bakoitzaren beharretara egokitutako azpiegitura espezializatuen sarea sustatzea (mikroekintzailtzari laguntzea; OTEB inkubagailu espezializatuak; unibertsitateko inkubagailuak eta ZTB eragileak; tokiko gune espezializatuak; inkubagailuak, azeleratzaileak eta beste gune pribatu batzuk...), eta ahalik eta gehien aprobetxatzea, aldizka aztertuta harrera-, inkubazio-, heltze-, azelerazio- eta erabilera-irizpideak. Azpiegitura eragile berriak sortzea, finkatzea eta sustatzea (adibidez, BAT, GOE, EDA, Hirekin, EKINN, sektore berrien hub-ak, ZTB laborategi eta azpiegitura berriak...), proiektuak, pertsonak eta talentua erakartzeko gabeziak arintzeko; OTEB proiektuak bultzatzea ingurune jakin batzuetan; barne-ekintzailtzako enpresa-proiektu berriak babestea; eta proiektu handiak garatzea eta etorkizunean lehentasuna izango duten sektoreak eraldatzea (gainera, EAEren erakargarritasuna handitzen laguntzen dute, ekintzaile izateko leku egoki gisa).
2.- Azpiegituren kudeaketa	- Ekintzailtzari laguntzeko azpiegitura guztien (mintegiak, inkubagailuak, azeleratzaileak, eta abar) kudeaketa aktiboa, sinetsita alderdi kualitatiboa (pertsonak, ezagutza, zerbitzuak, fluxuak, jardura-agenda, aukerak/proiektuak sortzea edo haztea...) azpiegituraren eskaintzaren gainetik lehenetsi behar dela eta lurraldeen arteko oreka eta landa- eta itsasertz-garapena ekintzailtzaren bidez sustatu behar direla. Ibilbide bat sortzea, gomendagarria dena proiektuak hainbat etapatan kokatzeko, kontuan hartuta irismen- eta espezializazio-maila eta azpiegitura bakoitzean eskuragarri dauden zerbitzuak eta bermatuta horien arteko trantsizio ordenatua eta baliabide osagarrien erabilera eraginkorra eta koordinatua.
3-Oinarritzko azpiegitura fisikoa	Oinarritzko azpiegitura fisikoen multzo bat sustatzea (osoa eta arrazoizko kostuan) proiektu berrietarako (banda zabal ultralastera, bulegoak eta lurzoru erabilgarria, logistika- eta garraio-azpiegiturak eta abar), pixkanaka gaintzeko lurzoru eskuratzeko, aireko eta trenbideko konexioetan, potentzia elektrikoan eta abarretan dauden gabeziak eta oztopoak.

Inplikaturako eragileak

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saila (EJ); AFaren Ekonomia Garapena eta Berrikuntza; BFaren Ekonomia Sustatzeko Saila; GFaren Ekonomia Sustapena eta Proiektu Estrategikoak; Enpresa eta Berrikuntza Zentroak; Beaz Bizkaia; Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila (EJ); udalak eta garapen-agentziak; EAEko unibertsitateak (EHU, MU, UD, Tecnun, BCC, EUNEIZ); azeleratzaile pribatuak, hala nola BerriUp, Metxa eta abar; Finkatutako enpresak; Inkubazioko eta azelerazioko beste azpiegitura eta programa pribatu batzuk.

i) 9. ardatza: Posizionamendua

Helburua: EAE finkatzea ekintzaile izateko leku erakargarri gisa, kanpo-konexioaren eta -ikusgarritasunaren bidez.

16/2012 Legearen helburuak	Lotutako adierazleak
- Ekintzaileei laguntzeko egungo politikak koordinatzea. - Enpresen sorrera eta hazkunde bultzatzen laguntzea. - Talentuaren etorrera sustatzea.	Ekosistemaren Kalitatea (NECI).

Azpiardatza eta lehentasunak

1-Ikusgarritasuna	EAE ekintzailetzarako lurralde erakargarri gisa sustatzea, arreta jarrita lehentasunezko sektoreetan, enpresa- eta industria-ekintzailetzan eta gizarte-berrikuntzan, laguntzeko tresna bereizgarrien babesarekin eta gaitasun eta balio propioen oinarri batekin. “Up! Euskadi” marka indartzea, kanpoko sustapen-estrategien erreferentzia gisa. OTEBen eta potentzial handiko enpresa berrien presentziari eta ikusgarritasunari laguntzea nazioarteko plataforma eta foro interesgarrietan, hazteko eta nazioartekotzeko. - EAEko ekintzailetzari laguntzeko eragile publiko eta pribatu guztien EAEko ekintzailetzari buruzko “kontakizun” komuna finkatzea, oinarri hartuta dauden gaitasunak, elementu bereizgarriak eta etorkizuneko anbizioa.
2-Konexioa eta erakarpena	Ekintzaileak eta startupak erakartzeko estrategia espezifikoak modu koordinatuan diseinatzea, ahaztu gabe funts espezializatuak, ekitaldiak, enpresak eta beste elementu batzuk. Kanpoan dauden gaitasunak aprobetxatzea (BTIren nazioarteko bulegoak, ganbera-sareak), EAE sustatu dadin ekintzaile izateko leku erakargarri gisa eta egin dadin baliabideak eskuratzeko zerbitzuen eskaintza koordinatua (adibidez, EAEko startupen scouting-a). Nazioarteko beste hub interesgarri batzuekiko lankidetzak bultzatzea, besteak beste, arlo hauetan: talentua, merkaturako eta ezagutzarako sarbidea, inbertsiorako sarbidea, azelerazio-programak...
3-Lankidetzak bidezko gobernantza	Ekintzailetzaren tresnak eta gobernu-organoak sendotzea eta hobetzea, indartzeko inplikaturako eragileen arteko lankidetzak, hobetzeko proiektu berriei laguntzak emateko koordinazio operatiboa eta optimizatzeko eskura dauden baliabideen erabilera. Jarraipen- eta ebaluazio-sistema indartzea, adierazle-multzo integral baten bidez, aukera emango duena lagundutako proiektuak monitorizatzeko eta haien jarraipena egiteko, baita haien emaitzak eta inpaktua ebaluatzeko ere, beharrezkoa denean laguntzak egokitu ahal izateko. - Emandako laguntzetan bikaintasun-printzipioak sustatzea (jasotako egungo balorazioaren ildotik, adibidez, NECI indizea), eragileen gaitasunen espezializazio progresiboa (haien eskumenak / misioa baliatuta) indartzea eta eragile guztien arteko lankidetzak eta koordinazioa bultzatzea, EAEko ekintzailetzaren egungo eta etorkizuneko gobernantzaren oinarri gisa. Arrakastarik izan ez duten proiektuen “post mortem” kudeaketa, gaitasunak aprobetxatzeko (ekintzaileak eta beren ekipoak, teknologia, patenteak eta markak, ekipamendua eta azpiegiturak eta abar) eta ekosistemara itzultzeko.

Inplikaturako eragileak


Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saila (EJ); AFaren Ekonomia Garapena eta Berrikuntza; BFaren Ekonomia Sustatzeko Saila; GFaren Ekonomia Sustapena eta Proiektu Estrategikoak; Osasun Saila (EJ); Elikadurako eta Landa Garapeneko Sailburuordetza – HAZI (EJ); Lanbide Heziketako Sailburuordetza - Tknika (EJ); udalak eta garapen-agentziak; EAEko unibertsitateak (EHU, MU, UD, Tecnun, BCC, EUNEIZ); BRTA eta ZTBES; Innobasque; Komunikabideak; Ekitaldi eta programa pribatu eta parapublikoen beste sustatzaile batzuk.

5. Ekintzak eta aurrekontua

EEP 2028an 793 ekintza egingo dira 2025-2028 urteetan, eta 156 eragilek parte hartuko dute (52 publiko eta 104 parapubliko eta pribatu). Ekintza guztietatik 544 gauzatuko dituzte eragile publikoek, eta gainerakoak eragile pribatu eta parapublikoek. Ekintza bakoitza dimentsio/ardatz eta eragilearen arabera aztertzeo, ikus [4. eranskina](#).

Ekintzailtzaren zeharkako izaera dela eta, EEP 2028 delakoak **oinarrian** dauka eragile publikoen eta eragile publiko, parapubliko eta pribatuen arteko **lankidetza**. Horren erakusgarri, Eusko Jaurlaritzak eta foru-aldundiek sustatutako ekintzak soilik kontuan hartuta, **% 55 lankidetzan egingo dira**: erakunde edota sail artean (% 37), lankidetza publiko-pribatua (% 16) edo nazioarteko eragileekin lankidetzan. Hala ere, lehen aipatu den bezala, erakundeen eta sailen arteko koordinazio-mailak **hobetzeko aukera** dago, baliatzen badira erakunde/sail bakoitzaren eskumenak eta eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetza.

2025. urterako onartutako Planaren aurrekontua **87,62 milioi eurokoa** da, eta ekintzailtzak partekatutako ahalegin publikoa azken urteetako antzeko kopuruetan finkatu da.



Ardatzen arabera, hirugarren (Iturriak eta Ideiak) eta seigarrenean (Laguntzarako programak eta zerbitzuak) daude laguntza-programa eta -zerbitzu gehienak (**aurrekontuaren % 40 baino gehiago**), azken urteetan bezala. 2. ardatza (Giza kapitala), 6. ardatza (Programak eta zerbitzuak) eta 9. ardatza (Posizionamendua) handitu egin dira, eta murriztu egin dira 8. ardatza (Azpiegiturak) eta 5. ardatza (Merkaturako sarbidea), azken urteotan inbertsio handiak egin ondoren (BAT B Accelerator Tower berria) eta programen sailkapenean aldaketak egin ondoren⁶.

⁶ Besteak beste, aldaketa Industria Digitala programaren sailkapenean.

6. Gobernantza, jarraipena eta ebaluazioa

6.1. Gobernatzeko printzipioak

Etapari berri honetan, eragileek partekatutako ibilbide-orri estrategiko gisa eratzten da EEP 2028, eta EAEko ekintzailetzaren gobernantzak **funtssezko hiru printzipio** ditu oinarrian. Hausnarketa-prozesuan parte hartu duten eragileek nabarmendu dituzte oinarri horiek:

- **Lankidetza “barnerantz”**: ekosistemako eragileen artean (maila publiko-publikoan eta maila publiko-pribatuan), koordinazio-mailak handitzeko eta dauden baliabideen aprobetxamendua maximizatzeko (sinergiak sortzea, efizientzia, eta baliabide publikoak berreskuratzea). Eskumen-esparruaren arabera:
- **Lankidetza “kanporantz”**: ekosisteman ez dauden eragileak erakartzea eta haiekin lankidetzan jardutea (funts eta eragile espezializatuak), baldin eta proiektu ekintzaileei laguntzeko beharrezkoak badira.



Eragile bakoitzak eskaintako **laguntzen bikaintasuna** (zerbitzuak, programak, azpiegiturak eta abar).

Laguntza-taldeen profesionalizazio gero eta handiagoari esker lortu behar da, baita eskura dauden baliabide eta bitartekoen erabilera eraginkor eta efizienteari, eta laguntza-tipologia bakoitzera bideratutako gastuaren bitartez lortutako emaitzen eta inpaktuen etengabeko ebaluazioari esker ere.

Eragile bakoitzaren eta haren laguntza-eskaintzaren **espezializazio gero eta handiagoa**, haren konpetentzia nagusiak eta/edo misioa egikaritzuz.

Eragileen artean tresnak gainjartzea, deskoordinazioa, ahaleginak sakabanatzea eta laguntzen kalitatea murriztea eragiten duten eskaintza jeneralistak murriztu behar dira. Gainera, ekintzaileei nahasmena eragiten diete.

Printzipio horiek hedatzeko, **EAEko ekintzailtzak atzerrian duen posizionamendua** indartu behar da, kontuan hartuta nazioarteko lehiakortasuna proiektuetan, talentuan eta inbertsioan, baita proiektu berriak sortzeko berezko mugak ere.

Horretarako, hauek dira beharrezkoak:

- Gaitasunen eta balioen oinarri bat finkatzen jarraitzea, jarduera ekintzailearen oinarri gisa.
- Beste lurralde batzuekin alderatuta, laguntza-tresna bereizgarriak izatea.
- Sektore, teknologia eta talde ekintzaileen hazkunde-bektoreak adieraztea, alde batera utzi gabe ekonomiaren sektore guztietan ekintzailtzari ematen zaion laguntza segmentatua.
- Kanpora proiektatzea, ekintzaile izateko leku erakargarri gisa onarpena lortzeko.
- EAE osoaren eta bertako ekosistema ekintzailearen kanpo-irudi paregabea transmititzea.



* Iturria: EIN. 2023ko datua. Industria eta zerbitzu aurreratuak: industria (% 22), informazioa eta komunikazioak (% 2,5), finantza- eta aseguru-jarduerak (% 4,6) eta jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak, administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (% 7,6).

6.2. Gobernantza-eredua

Planaren gobernantzari dagokionez, 16/2012 Legearen arabera, Eusko Jaurlaritzaren **Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailak** bultzatu eta zuzentzen du EEP 2028, eta Eusko Jaurlaritzaren Industria Sustatzeko Sailburuordetzaren Ekintzaitza eta Nazioartekotze Zuzendaritzak kudeatzen eta koordinatzen du.


Planaren jatorriaren eta izaeraren arabera, eta EAEn ekintzaitza sustatzen parte hartzen duten eragileen aniztasuna kontuan hartuta, bi gobernantza-organo daude: **erakundearteko mahaia eta aholkularitza-batzordea**. Etapa berri honetan, eta identifikatutako hobekuntza-arloak kontuan hartuta, **gune berriak sortzea** proposatzen da, laguntzen koordinazio operatiboa errazteko (ekintzaitza-tipologia bakoitzari dagozkionak), laguntza-talde teknikoaren arteko elkarrekintza sortzeko eta ikaskuntza partekatzeke.

	Azalpena	Helburuak
EEPren gobernu-organoak		
EEPren erakundearteko mahaia <u>Sei hilean behin egiten den bilera:</u> - Planaren urteko jarraipenari buruzko bilera, 1. sei hilekoan. - Hurrengo urterako aurreikusitakoari buruzko bilera, 2. sei hilekoan.	- Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Saila buru duen erakundearteko organoa, honako hauek osatua: - Eusko Jaurlaritzaren 10 sail (Industria, Trantsizio Energetikoa eta Jasangarritasuna; Elikadura, Landa Garapena, Nekazaritza eta Arrantza; Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoa; Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza; Kultura eta Hizkuntza Politika; Ekonomia, Lana eta Enplegua; Hezkuntza; Ogasuna eta Finantza; Osasuna; Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa). - Foru-aldundiak: Ekonomia Sustatzeko Sailak (AFA, BFA, GFA), BFAREN Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berritasuna Sustatzeko Saila eta Ogasun Sailak. - Udalak eta toki-garapenerako agentziak (EUEDEL eta GARAPEN).	- EEPri lotuta, sailen artean eta erakundearen artean behar diren harremanak eta koordinazioa antolatzea. - EEP diseinatzea, lantzea, kontratatzea eta aurretik onartzea. - EEPren ezarpenaren urteko jarraipena egitea eta haren txostenak onartzea. - Informazio interesgarria trukatzeko eta sinergia eta lankidetzak posibleak sustatzea. - Ad hoc lantaldeak proposatzea, gai eta premia zehatzen arabera. - EEPn ezarritako lehentasunak aldian behin berrikustea. - EEPren aginte-taula eta adierazleak definitzea.
Ekintzaitzaren Euskal Aholkularitza Batzordea <u>Urtean behin egiten den bilera:</u>	- Ekosistemaren eragile publiko eta pribatuak osatutako aholkularitza-batzordea. Ordezkaritza-sistema txandakatua du, eta, besteak beste, kide hauek ditu: - Eragile publikoak: Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak, EUEDEL, SPRI, Enpresa eta Berrikuntza Zentroak, Beaz Bizkaia eta Tknika. - Eragile parapublikoak: BRTA, EAEko merkataritza-ganberak eta EEB. - Eragile pribatuak: unibertsitate pribatuak, CEIT, Metxa, Easo Ventures, Coben Club eta Acurio Ventures (kide berriei irekia, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailak baloratu beharrekoak).	- EAEko ekintzaitza-ekosistemaren eragileen aniztasuna kontuan hartzea. - Ekosistemaren egoerari eta ikuspegiari buruz hausnartzea. - Joera, aldaketa eta jardunbide interesgarriak identifikatzea. - Egunetik egunera osatuagoa, dinamikoagoa eta erakargarriagoa den ekosistema sustatzea. - Ekosistemaren eragileen arteko lankidetzak sustatzea, baita balioa duten beste eragile eta ekosistema batzuekin ere.
Balizko espazio edo tresna berriak		
Ekintzak koordinatzeko taldeak	Laguntza-eragileen ekintzak koordinatzeko taldeak, besteak beste, OTEB ekintzaitza eta mikroekintzaitza/autoenplegua bereizita.	- Elkarri programa eta tresnen berri ematea - Estali gabeko hutsuneak identifikatzea eta horiei erantzutea - Lankidetzak maximizatzea eta gainjartzeak eta deskoordinazioa murriztea
Ekintzaitzako talde teknikoaren urteko foroa <u>Urtean behin egiten den bilera:</u>	Elkarreraginerako, jardunbide egokiak trukatzeko eta elkarrekin ikasteko foroa, administrazio publikoaren teknikari-taldeen eta ekintzaitzari laguntzeko eragile parapubliko eta pribatuaren artean.	- Ekintzaitzari laguntzeko une bakoitzean dauden eragileei ("nor da nor") eta programa/zerbitzuei buruzko informazioa partekatzea (ekintzaitza-tipologiak bereizita). - Jardunbide egokiak trukatzeko. - Gai edo metodologia interesgarri berriei buruzko prestakuntza jasotzea.

6.3. Jarraipen- eta ebaluazio-sistema


16/2012 Legearen helburuetako bat da “ekintzaileei laguntzeko zerbitzu bakoitzaren errentagarritasuna eta kalitatea identifikatuko dituzten adierazle komunak osatzea, eta emandako diruarekiko erlazioa neurtzea eta sortutako enpleguaren, fakturazioaren, biziraupen-adierazlearen eta internazionalizazio-mailaren datuekin alderatzea”. Agindu hori betetzeko, EEP 2028k, soiltasun- eta praktikotasun-irizpideei jarraituz, ekintzailtzaren egoerari eta laguntza-jarduerei buruzko **urteko sistematika bat jasotzen du monitorizatzeko, jarraipena egiteko eta kontuak emateko**.

Horretarako, **hiru tresna** ditu: EEPren urteko balantze-txostena (Ekintzailtzaren Barometroa buru duen adierazle-panel batekin), startupen EAEko ekosistemari buruzko bi urtean behingo txostena (Up! Euskadi), eta Euskal Autonomia Erkidegoko urtean behingo GEM txostena (EEBk egin eta EAEko erakundeek finantzatu). Entzute-prozesutik abiatuta, hobekuntza batzuk proposatzen dira, **monitorizazio- eta ebaluazio-sistema integratu** baterantz aurrera egiten jarraitzeko:



Egin litezkeen hobekuntzak

- Euskal ekintzailtzaren monitorizazioa:** aurkeztutako eta lagundutako proiektuen analisia eta jarraipen estatistikoa, haien bilakaera monitorizatzeko eta ondorioak ateratzeko.
- Adierazle berriak:** jarduera ekintzaileari buruzko dimentsio eta adierazle berriak pixkanaka txertatzea; adibidez, ekintzailtza migratua, jasagarritasuna, ekintzailtza eta desgaitasuna, eta abar.
- Ekintzailtzaren atlasa:** Euskadin ekintzailtzari laguntzeko ibilbideen “geografia fisikoaren eta giza geografiaren” gidaliburua, une bakoitzean dauden eragile, kontaktu, laguntza eta espazio guztiei buruzko informazioa jasoko duena.
- Ekintzailtzaren historia bakarra:** pertsona/proiektu ekintzaile bakoitzari buruzko informazio indibidualizatu, haren bilakaeraren eta egoeraren jarraipen partekatua ahalbidetuko duena (1. laguntza-eskabidetik aurrera, emandako/ukatutako laguntzak, eta abar).



7. Eranskina

7.1. 1. eranskina: Egindako elkarrizketen zerrenda

Eragilea	Kargua - lanpostua	Pertsona
Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco	Industria Sustatzeko sailburuordea Ekintzailtza eta Nazioartekotzearen zuzendaria Ekintzailtza arduraduna	Andoitz Korta Zearreta Ane de Ariño Ochoa Jose Luis España Guzman
	Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburuordea Gazteria eta Emantzipazioko zuzendaria Etorkinen Harrera eta Integrazioko zuzendaria Hirugarren Sektore Soziala eta Ekintza Komunitarioa Sustatzeko zuzendaria	Xabier Legarreta Gabilondo Adrián López Sarachaga Ignacio Fariña Sarasqueta Iciar Peña Laustalet
	Ogasuneko sailburuordea	Iñaki Alonso Arce
	Turismo eta Merkataritzako sailburuordea	Jakes Aguirrezabal Iribar
	Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordea Elikagaien Politika eta Industriako zuzendaria	Raúl Pérez Iratxeta Iker Iglesias Eguía
	Kulturako sailburuordea	Andoni Iturbe
	Ikerketa, Berrikuntza eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria	Iñaki Gutiérrez Ibarluzea
	Ikaskuntza eta Berrikuntzako zuzendaria	Aitor Uriondo
	Eraldaketa Digitalaren eta Ikaskuntza Aurreratuen zuzendaria	Inge Gorostiaga Luzarraga
	Gizarte Ekonomiaren zuzendaria + Zuzendaritzako teknikariak	Jokin Díaz Susana Estíbalaz Presa Carlos Lope Moreno
	Unibertsitate Antolamendu eta Plangintzaren zuzendaria	Sara Urionabarrenetxea
	Enplegu Zuzendaritzaren arduraduna + teknikaria	Edurne Barañano Nagore Garzón
	Lanbideren Enpresen eta Ekintzailtzaeren zuzendaria	Maite Martínez Granado
Arabako Foru Aldundia	Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua	Itziar Gonzalo de Zuazo
	Ekonomia Sustapeneko zuzendaria	Ander Larrinaga
Bizkaiko Foru Aldundia	Ekonomia Sustapeneko zuzendaria	Joseba Mariezkurrena
	Enplegua Sustatzeko zuzendari nagusia + teknikaria	Susana González Itxaso Álvarez Madariaga
Gipuzkoako Foru Aldundia	Ekonomia Sustapeneko diputatua	Unai Andueza
	Ogasun eta Finantzarako diputatua	Itziar Agirre
EUDEL – GARAPEN	GARAPENeko Ekintzailtza Batzordea (9 pertsona)	
Unibertsitateak	EHU (hiru campusetako Berrikuntza eta Transferentziako zuzendariak + teknikaria)	Nagore Tellado Amaia Calleja Noemí Peña Olatz Sáenz
SPRI	Enpresa Sustapeneko zuzendaria	Aitor Cobanera
	Ekintzailtza Arloa	Imanol Cuétara Tristán Shedden
Enpresa eta Berrikuntza Zentroak	Araba, Bizkaia, Bizkaia Ezkerraldea eta Gipuzkoako Enpresa eta Berrikuntza Zentroak	David Montero Olatz Goitia Joseba Goikouria eta Borja Liaño Marisa Arriola

Eragilea	Kargua - lanpostua	Pertsona
Euskal Herriko Arrisku Kapitala	Zuzendari nagusia	Arrate Aranbarri
BRTA	Zuzendari nagusia Transferentziaren arduraduna	Rikardo Bueno Zabalo Garbiñe Manterola Agirrezabalaga
HAZI	Zuzendari nagusia Ekintzailetzako zuzendaria	Raimundo Ruiz de Escudero Mentzia Ochoa de Zuazola
Beaz Bizkaia	Zuzendari nagusia	Olatz Goitia
BAT B Accelerator Tower	Zuzendaria	Eriz Sainz Gurtubay
Innolab Bilbao	Zuzendaria	Iraia Monteagudo
Donostia Sustapena	Berrikuntza eta Lehiakortasuneko arduraduna	Ainhoa Aldasoro
Bilboko Merkataritza Ganbera	Idazkari nagusia / Zuzendari gerentea	Mikel Arieta-Araunabeña
EEB	Presidentea	María Saiz
Deustuko Unibertsitatea	Berrikuntza eta Ekintzailetzako zuzendaria	Garbiñe Henry
Mondragon Unibertsitatea	Ekintzailetza Teknologikoko koordinatzailea Ekosistema ekintzaileetan aditua	Laida San Sebastián / German Anitua / Carlos García Crespo
ADEGI	Ekintzaileen foroaren arduraduna	Josean Rodríguez
CEBEK	CEBEK Emprende-ren arduraduna	Albert Soro
Aspegi	Presidentea	Nerea Ibáñez
Ajebask	Presidentea	Íñigo Juez
BerriUp eta Easo Ventures	Bazkide-zuzendaria	Pedro Muñoz-Baroja
Metxa	Sortzailea	Jose txu Silgo
Eywa	Sortzailea	Mayr Alcaine eta Yeray Mateos
Coben	Bazkide-zuzendaria	Idoia Iturbe
Artizarra Fundazioa	Zuzendaria	Amaia Jugo
Acurio Ventures	Bazkide sortzailea	Ander Michelena
Tecnalia Ventures	Zuzendaria eta sortzailekidea	Asier Rufino
Iberdrola Perseo	Zuzendaria	Oscar Cantalejo
Mondragon Ventures	Zuzendari nagusia	Joseba Sagastigordia
CAF Startup Station	Co-manager	Leire Aguirre
BStartup (Sabadell Startups)	BStartup taldeko kidea	Joseba Goicoechea
Lawesome	Negozio Garapeneko zuzendaria	Aitor Urzelai
Kanpoko adituak	Asier Basterretxea (EXVOLUTION), Javier Megías (ex Plug&Play), Mathieu Carenzo (IESE)	
CDTI – EIC Accelerator		Luis Guerra

7.2. 2. eranskina: Euskal Ekintzailetzaren Barometroari buruzko azalpen-oharra

Euskal Ekintzailetzaren Barometro **berria tresna bat da, urtero informazioa ematen diena** ekosistemaren eragileei eta gizarte osoari, modu erraz eta zuzenean, **ekintzailetzaren egoerari eta bilakaerari buruz**.

2024ko EEPn jasotako konpromisoa betetzeko, Eusko Jaurlaritzak eta SPRIk lan-prozesu zorrotz baten bidez garatu zuten adierazle berria, eta erakunde adituek berretsi zuten.

Datu hori **oinarrizko 67 adierazletan oinarrituta kalkulatzen da**: Ekintzailetzako berariazko 37 adierazle (jarduerarenak eta eraginarenak), EEPren 9 ardatzetan sailkatuta, eta testuinguruaren arabera 30 adierazle. Barometroaren datuek adierazle horien bilakaera erakusten dute, eta kalkulurako 100 oinarria da 2013-2019 urteetako batezbesteko haztatua.

Adierazle sintetiko berria **grafikoki adierazteko**, 50 eta 150 puntu bitarteko eskala erabiltzen da, barometro itxurakoa, adierazle sintetikoaren urteko balioari begira dagoen orratz markatzaile batekin. 100 balioa barometroaren erdigunean dago, eta EAEko ekintzailetzaren hiru tarte edo maila bereiz ditzakegu (handia/oso ona, 120 eta 150 puntu artean; ertaina/ona, 90-120 puntu; eta txikia/txarra, 50-90 puntu).

Barometroa eraikitzeke eta baliozkotzeko prozesu metodologikoak oinarrian ditu zorrotasun-, sinpletasun- eta gardentasun-printzipioak. **Eustatek eta Ekintzailetzaren Euskal Behatokiak** bermatuta, oinarrian izan ditu ELGA-OCDEren “**Handbook on Constructing Composite Indicators**” gida metodologikoa eta Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Sailaren “Euskal ekonomiaren termometroa” delakoarekin izandako esperientzia.

Gainera, oinarrian dauka EAEko ekintzailetzaren berezitasunera eta ezaugarrietara **egokitutako esparru teoriko** bat: GEMek definitutako aldagaien arteko erlazioen eredua, eta ekintzailetzaren EAEko ekosistemaren dimentsioen eredua, EEP 2024an jasota eta Babson College-ek ekosistema arrakastatsuei buruz egindako azterketetan oinarrituta.

7.3. 3. eranskina: EEP 2028ren Adierazleen Panelaren xehetasuna

Jarraian, EEP 2028ren Adierazleen Panelaren xehetasunak azaltzen dira. Panel hori 2023an berritu zen, EEPren erakundearteko mahaiaren eragileek parte hartu zuten prozesu parte-hartzaile baten ondoren.

ARDATZA	MOTA*	NORK NEURTZEN DU	IZEN LABURTUA	KALKULATZEKO FORMULA
1. Ekintzailetzaren kultura eta balioak	J	GFA, AFA, BFA E, BFA ESS, TIAZ, EUS, GEZ	Ekintzailetza-sariei mobilizatutako proiektuak	Eusko Jaurlaritzak edo foru-aldundiak finantzaturako ekintzailetza-sariei mobilizatutako proiektuen kopurua
	I	GEM	Ekintzaile potentzialak	Aldagai honek adierazten du 18 eta 64 urte bitarteko biztanleen zer ehunekok (%) duen asmorik datozen 3 urteetan negozio bat sortzeko, generoaren arabera
	I	GEM	Porrotarekiko beldurra	Porrotarekiko beldurra ekintzailetzarako oztopo gisa hartzen duten pertsonen ehunekoa (%)
	I	GEM	Inpaktu soziala/ingurumen-inpaktua lehenestea	Hasierako fasean dauden enpresen inpaktu soziala/ingurumen-inpaktua lehenestea, generoaren arabera
2. Giza kapitala trebatzea eta konektatzea	J	GEM	TEA goi-mailako ikasketekin	Goi-mailako edo graduondoko ikasketak dituzten eta hasierako fasean (TEA) dauden ekintzaileen ehunekoa (%)
	J	GFA, AFA, BFA ESS, TIAZ, EUS, Lanbide	Ekintzailetza-prestakuntza jaso duten pertsonak	Eragile publikoen bidez ekintzailetzarako oinarritzko prestakuntza eta prestakuntza aurreratua jaso duten pertsonen kopurua, honela banatuta: oinarritzkoa eta aurreratua
	I	GEM	Negozio ekintzaileak > 5 langile (%) / Espero den enplegua > 5 langile 5 urtean TEA	5 langile baino gehiago dituzten negozio ekintzaileen ehunekoa / 5 urtean 5 pertsona baino gehiago kontratatzea espero duten TEAren ehunekoa (%)
3. Ekintzailetzarako iturriak eta ideiak	J	GFA, AFA, BFA ESS, BFA E, TIAZ, EUS, GEZ, L	Laguntza publikoarekin sortutako enpresa berriak	Ekintzailetza sustatzeko dekretu publikoen laguntzarekin alta emanda dauden banakako enpresen eta enpresaburuen kopurua
	I	Gizarte Segurantzza	Pertsona autonomoen altak	EAEko pertsona autonomoen alten kopuruaren bilakaera (% aurreko urtearekin alderatuta)
	I	EIN	Merkataritza- eta gizarte-enpresen altak	EAEko sortutako merkataritza-enpresen (anonimoak eta mugatuak) eta enpresa sozialen (sozietate kooperatiboak, lan-sozietate anonimoak eta lan-sozietate mugatuak) kopuruaren bilakaera (% aurreko urtearekin alderatuta)
	I	UP! EUSKADI	Startup aktiboaren kopurua	Sortzen ari diren enpresa berritzaileen edo oinarri teknologikokoaren kopurua, 10 urtetik beherako antzinatek asuna dutenak
	I	IUNE, BRTA, INNOBASQUE, SPRI, GFA, AFA, BFA ESS	Barne-ekintzailetza - ZTB eragileen spin-off-ak eta enpresa proiektu berriak	Ezagutza-eragileen spin-off berrien kopurua (ZTBES eta Euskal Unibertsitate Sistema) / Enpresa-ekintzailetzako proiektuen kopurua
	I	GEM	TEA generoaren arabera.	Ekintzailetza-tasa guztira, generoaren arabera
4. Finantzaketa eta inbertsioa eskuratzea	J	UP! EUSKADI	Inbertsio publiko osoa startupen finantzaketa-txandetan (milioi euro)	Kapital publikoaren inbertsioa guztira EAEko startupetan, finantzaketa-txandetan (euroak milioitan)
	I	UP! EUSKADI	Inbertsio pribatu osoa startupen finantzaketa-txandetan (milioi euro)	Kapital pribatuaren inbertsioa guztira EAEko startupetan, finantzaketa-txandetan (euroak milioitan)
	I	GEM	Ekintzaileak berak ordaintzen duen hazi-kapitalaren ehunekoa (%)	Pertsona ekintzaileak berak ordaintzen duen hazi-kapitalaren ehunekoa (%) (funts horiek erabili dituzten kasu guztiak oinarritzat hartuta)
	I	UP! EUSKADI	EAEko startupen balorazio osoa (euroak milioitan)	EAEko startupen balorazio osoa (euroak milioitan)
5. Merkaturako sarbidea	J	Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila	BIND 4.0 programaren kontratuak	BIND 4.0 programaren bidez EAEko proiektu ekintzaileen eta enpresa finkatuen artean sortutako urteko kontratuen kopurua
6. Laguntzarako prozesu, zerbitzu eta programak	J	GFA, AFA, BFA E, BFA ESS, TIAZ, EUS, GEZ, L	Eragile publikoen laguntzarekin egindako bideragarritasun-planak	Foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren mendeko ekintzailetza-eragileen laguntzarekin egindako bideragarritasun-planen kopurua
	I	GFA, AFA, BFA E, BFA ESS, TIAZ, EUS, GEZ	Aholkularitza jaso eta 3 urtera irauten duten enpresak	Duela hiru urte sortutako enpresa/pertsona autonomo aholkatuen artean, 3 urte horiek igarota, irauten dutenen ehunekoa. Enpresak eta pertsona autonomoak bereizita
	I	GEM	Enpresaburuen populazio finkatua	Enpresa finkatuak dauzkan biztanleria (%) (gutxienez 42 hilabetetik hona ordaintzen dira soldadak)
7. Zerga-sistema eta araudi erraztaileak	I	Ejren OGASUNA	Ekintzailetza babestek dakarren inpaktu fiskala (euroak milioitan)	Foru Ogasunek ekintzailetza bultzatzeko aplikatutako kenkari fiskalen batura osoa (euroak milioitan)
8. Azpiegitura adimendunak	J	GFA, AFA, BFA ESS	Azpiegitura publikoetan inkubatutako enpresak	Inkubazioari laguntzeko azpiegitura publiko nagusietan inkubazioan dauden enpresen kopurua
9. Posizionamendua eta ekosistema indartzea	I	GEM	Ekosistemaren kalitatea	Ekosistemaren kalitatearen NECI indizea (National Entrepreneurship Context Index)
EEPren aurrekontua	J	ERAKUNDEARTEKO MAHAIAREN ERAGILEAK	EEPri esleitutako urteko aurrekontua (euroak milioitan)	EEPren adjudikatutako urteko aurrekontua (euroak milioitan)

* Mota: J (jarduera) edo I (inpaktua). Eragileen legenda: EJ (Eusko Jaurlaritza); ESJS (Ekonomia Sustapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila, Eusko Jaurlaritza); AFA (Arabako Foru Aldundia); BFA (Bizkaiko Foru Aldundia); BFA ESS (Bizkaiko Foru Aldundia, Ekonomia Sustatzeko Saila); BFA E (Bizkaiko Foru Aldundia, Enplegua); GFA (Gipuzkoako Foru Aldundia); Ogasuneko Sailburuordetza (EJ); GEZ (Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza); TIAZ (Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuaren Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritza); SPRI; BRTA (Basque Research and Technology Alliance); Innobasque; L (Lanbide); EUS (Euskal Unibertsitate Sistema: EHU, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta Tecnun); GEM (Global Entrepreneurship Monitor, Ekintzailetzaren Euskal Behatokia); UP Euskadi (UP Euskadi plataforma, Dealroom, SPRI); EIN (Estatistikako Institutu Nazionala); IUNE (Espainiako unibertsitate-sistemaren IUNE behatokia).

7.4. 4. eranskina: EEP 2028ren ekintzen eta aurrekontuaren xehetasunak

Dokumentu honetan azaltzen denez, EEP 2028an 793 ekintza egingo dira 2025-2028 aldian, eta, guztira, 156 eragile egongo dira (52 publiko eta 104 parapubliko eta pribatu). **Dokumentu honekin batera doan datu-basean**, ekintza bakoitzaren xehetasunak azaltzen dira: eragile arduraduna, deskribapena, parte hartzen duten beste eragile batzuk eta horiek kokatzen diren EEPren ardatza.

Laburbilduta:

